# ttipi-ttapa

262. zenbakia • 1999ko irailak 23 • XIX. urtea

# Laster 'ikuskizun' hau nagusituko da mendi hegaletan

*Gure inguruan ia 5.000 ehiztari prest daude uso ehizari hasmenta emateko. Aurten, urriaren 1ean libratuko da ehizi sasoia.*

Ikaragarrizko grina sortzen du ehizak inguru honetan, baita higuina ere. Nork ez du eduki noizbait ehizaren gainean eztabaida sutsuren bat? Izan ere, hagitz jende guttik erakusten du jarrera epela gai honetaz solasterakoan.
Kontuak kontu, bertze urte batez uso ehiza hasiko da urriaren 1etatik aitzinera, urte guzian horren zain egoten diren ehiztarien pozerako. Denbora horretan milaka eskopeta egonen dira zerura begira inguruotako mendi lepoetan. Herriz herri egin dugun kontaketaren arabera, 4.230 ehiztari inguru ditugu eskualdean, eta horiei, kanpotik etortzen direnak gehitu beharko zitzaizkien. Bertzalde, ekologistek argi gorria piztu dute: urtetik urtera urtera uso gutiago pasatzen da ehiztarien eraginez.

☞ 4-5



ZALDUA Argazkia

**3** Elkarrizketa

## Senpereko Yplon lantegiko langileak

59 langile enplegatzen zituen lantegi hau hetsi egin dute berriki, 15 urte lanean aritu eta gero. Langile horietako batzuekin mintzatu gara: «lana galtzea zinez gogorra da. Halere elkartasuna izan dugu Senpereko Saltzaileen Batasunaren aldetik, eta herritar frango bildu da lantegi aitzinean sustengua erakusteko» diote.

**6** Gaurkotasuneko gaia

## Baztango UPNk ez du Udal Batzordeetan parte hartuko

Erabaki horren zergatiak azaldu dizkigu Leopoldo Jaen UPNko zinegotziak. EAko alkateak, Patxi Oiartzabalek eta EHko Mikel Altzuart zinegotziek beren iritzia plazaratu dute.

MUEBLES AMETS
mobleak orokorrean







Alkaiaga poligonoa, Sastrin karrika • Lesaka
Tfnoa: 948 630 537 • Fax: 948 631 443
Sarrera Beratik



SUKALDEAK
LOGELAK
EGONGELAK
BAINUAK
OSAGARRIAK

Zure erosotasunerako, 4.000 m²ko erakustokia

DATUAK...........

*Gan den udaberrian jakin zen Senpereko YPLON kosmetika lantegia hetsiko zela. Aferak oihartzun haundia izan zuen orduan.*

*Enplegatuak zertan diren jakin nahi izan dugu. Horretarako hiru senpertarrekin mintzatu gara: Pellot Halsouet (CFDT sindikata), Doris Sueur (Enpresa Komitea) eta Beatrixe Sein (emplegatua).*

*YPLON lantegia 1984ko uztailean ideki zen Senperen. Lau urte beranduago bermoldatu zen enpresa eta 1998an 59 langile zituen. Aurten, martxoan, hetsiko dela jakin zen.*

TESTUA:
**FRANCK DOLOSOR**

**Senpereko YPLON enpresako langileak**

# "Ez du balio Bretañarat gatea, hango lantegiak ere hetsiko baitituzte"

**NOLA GERTATU DA YPLON, 15 URTEKO ENPRESA HESTEA?**

YPLON 1984ko uztailean ideki zen eta 1988an bermoldatu zen enpresa. 1998an 59 langile dauzka, baina hestearen afera 98ko urrian sortu zen. Fouwe zuzendariak aldaketak hitz eman zituelarik. Lantegian europar legeak errespetatu behar zituzten eta sinetsarazi zuten inbertsio ala inbestizamenduak eginen zituztela Senpéren. Holakorik ez da izan eta aurtengo udaberrian jakin dugu YPLON hetsiko zela. Martxotik aitzin akziodunek ez dute diru gehiagorik eman nahi eta martxoaren 1ean YPLONeko jabeek zuzendaria kanporatzen dute. Zerbaiten esperantza eman zuten alta! Orain lanpostu batzu proposatzen dituzte Bretaña eta Belgikan.



**Negoziaketa garaian Senpereko langileak Bretañarat gan ziren, YPLONeko zuzendaritzarengana.**

**ZER EGINEN DUZUE, BERAZ?**

Hemen egon. Ez da nehor harat ganen. Gu hemengoak gara, familiak eta bizi osoa hemen ditugu eta Euskal Herriari lotuak gara. Edozein gisaz ez du balio harat gatea, denbora guti barne hango lantegiak ere hetsiko baitituzte, gure ustez. Momentuko aterabidea bertzerik ez litzateke izanen.

**GERTAKARI LATZ HUNTAN NOLA SENTITU ZARETE?**

Lana galtzea zinez gogorra da. Halere elkartasuna izan dugu Senpereko Saltzaileen Batasunaren aldetik. Herritar frango bildu da ere lantegi aintzinean sustengua erakusteko apirilaren 6an izan zen den elgarretaratzean. Sustenguaz mintzo garelakoz, erran dezagun bertzerik izan dela auzapeza eta hautetsi batzuen partetik.

*"Lana galtzea zinez gogorra da. Halere elkartasuna izan dugu Senpereko Saltzaileen Batasunaren aldetik. Herritar frango bildu da lantegi aintzinean sustengua erakusteko."*

**ORAIN ZER GERTATUKO DA?**

Heldu den urriaren 11n, berrogeita bortz enplegatu kanporatuko dituzte. YPLONek bersailkatze saila ideki du, lan-miatzea errexteko. Hau egitera bortxatua izan da zuzendaritza.

**GERTATU ZAIZUENA NEKEZ AHANTZIKO DUZUE, EZ DA?**

Biziki gogorra da lana galtzea, lan egitea bertzerik ez duzularik galdetzen. Halere enplegatuak beti prest izan dira zerbait egiteko. Gure artean biziki lotuak izan gara eta konfiantza haundia bazen sindikatuarekin. Huni esker posible izan da sei hilabete irabaztea, bertzenaz YPLON uda aintzin hetsiko zuten. Egia da aldarrikapen batzuk erdietsi ditugula, baina ez dezagun ahantz lana ebatsi daukutela 59 presuneri. Gainera, orain Senpereko Lizardia lanzelaia kasik hutsa gelditiko da.



Hiru belaundalditako goizuetar kuadrila, hiru basurde ehizatu ondoren.

EHIZA-SASOIA

# 80 ehiza-toki eta 4.200 ehiztari baino gehiago

***Inguru honetan ikaragarrizko grina sortzen du ehizak, baita higuina ere. Nork ez du noizbait ehizaren gainean eztabaida sutsuren bat eduki?***
***Izan ere, hagitz jende guttik erakusten du jarrera epela gai honetaz solasterakoan.***
***Kontuak kontu, bertze urte batez uso ehiza hasiko da urriaren 1etik aitzinera, urte guzian horren zain egoten diren ehiztarien pozerako. Gure eskualdea Euskal Herriko toki hoberenetakoa da uso ehizian aritzeko, eta hemengoez gain kanpotik ere ehundaka ehiztari etortzen dira egunpasan.***
***Bertzalde, ehiztariek bertzerik badiote ere, elkarte ekologistetatik ohartarazi dute usoak gero eta kopuru murritzagoan pasatzen direla, eta horrela segituz gero luze gabe desagertzen ahal direla.***

TESTUA : *ASIER GOGORTZA*

Urriaren 1ean libratuko da uso-ehiza, dudarik gabe zaletu gehien biltzen duena, bainan irailarenhasmentatik basurdetan eta orkatz edo basahuntz ttikitan ari dira ehiztari batzuk. Urriaren 1etik aitzinera, milaka eskopeta egonen dira zerura begira inguru honetako mendi lepoetatik. Herriz-herri egin dugun zenbaketaren arabera, 4.230 bat ehiztari dago gure eskualdean, biztanlego osoaren %14a baino gehiago, hain zuzen. Hori haurrak eta adinduak barnean sartuta, eta hagitz emakume ehiztari gutti dagoela kontutan hartuta. Beraz, ehizak zenbaterainoko zaletasuna pizten duen garbi ikus daiteke zenbakiei kaso eginez.

Horrez gain, hemengo 4.230 ehiztarieri kanpotik etortzen diren ehiztari andana gehitu behar zaizkie, noski, aunitz baitira Gipuzkoa eta Iruñea aldetik hemen inguruko ehizatokietara hurbiltzen diren zaletuak.

## Postu hoberenak lortzeko borroka

Baztanaldea, Leitzaldea, Malerreka, Bortziriak, Senpere eta Sarakoak kontutan hartuta, usotan aritzeko 1.200 ehiza-postu baino gehiago daude 81 ehiza-tokitan banaturik.

Ehiza elkarte bakoitzak bere gisara partitzen ditu postu hoiek: Etxalarren berriki egin da Usategietako postuen subasta. Urtero diru pila ikaragarriak ordaintzen dira hoiek eskuratzeko. Aurten, ordea, 22 ehiza-postutik 14 hasierako prezioan saldu dira.

Subasta honetan Iruñea eta Gipuzkoa aldeko ehiztariek hartzen dituzte posturik garestienak, eta bertze herrietan ere gisako zerbait gertatzen da. Kanpokoendako berexiki prestatutako ehiza-postuak daude ehiza-barruti gehienetan. Senperen, errate batera, Ziburuko Bordako kaxkoan, 50 postu daude kanpotarrendako, eta 5 edo 6 soilik senpertarrentzat.

## Diru aunitz mugitzen du ehizak

Ehiza elkarteendako diru-sarrera polita izaten da kanpotarrei kobratutako kuota. Adibide batzuk jartzekotan, Lesakan herrikoek 5.500 pezeta ordaintzen badute kotoarengatik, kanpotarrek horren bikoitza jarri behar dute. Legasa eta Doneztebeko ehiza-barrutian, berriz, puskaz garestiago ordaintzen da: herritarrek 16.000 pta eta kanpotarrek 40.000.

Izan ere, ehiza ez da batere kirol merkea, eta maiz arrenkurak izaten dira kuota ordaintzekoorduan. Ehiztari batek guttien-guttieneko gastu batzuk egin behar ditu nahitanahiez: Lizentzia (2.000 pta inguru), asegurua (4.000tik goiti)... gero ehiza-barrutiarengatik ere ordaindu behar da (2.500 eta 25.000 pta bitartean), eta kartutxotan ere diru parrasta joaten da (10.000-15.000 pezeta guttienez). Bertzalde, 5 urtero




osasun-errebisioa egin behar da eta arma baimena berritu (denetara 10.000 pezeta inguru). Honenbertzez, eta eskopeta batek gutti goiti beheiti 120.000 pezeta balio duela kontuan hartuz, ehizian hasteko 150.000 pta (6.000 libera) baino gehiago behar direla ikusten ahal dugu.

## Usoak desagertzeko arriskua

Orain arte ehizaren eta ehiztarien gorabeheretaz mintzatu gara batez ere, bainan usoei buruz zer erran daiteke?
Talde ekologistek argi gorria bixtu a dute dagoeneko, eta lehenbailehen neurri batzuk hartu beharra aipatzen dute, ez badugu Ameriketan usoekin gertatu zena errepikatzea nahi. Han 100 urteren buruan espezie oso bat desagertu zen ehizaren eraginez.
Hemengo datuak kezkagarriak dira hagitz: 60. hamarkadan 15 milioi uso zeuden, 80. hamarkadan 8 milioi, eta 97-98. urteetan ehiztariek beraiek egindako zenbaketetan 2 milioi uso baino guttiago daudela ondorioztatu dute. Horri aurka egiteko 5 urteko epean ehiza debekatzea proposatzen du Organbidexka erakundeak, eta zenbait mendi-lepotan ehiza debekatzea tartean-tartean. Kontrapasari buruz, berriz, astakeria galanta dela diote, usoak errutera itzultzen baitira iparraldera. ■

## EHIZA ELKARTEAK HERRIZ HERRI

| | ELKARTEA | LEHENDAKARIA | BAZKIDEAK | KUOTA | POSTUAK | ETXOLAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ARANO | | | 70 | 7.000 Pta | 20 | |
| GOIZUETA | "Basahuntz" | Martin Lujanbio | 180 | 7.000 Pta | 54 | 1 |
| ARANTZA | "Usoa" | J.M. Errandonea | 220 | 2.500 Pta | 102 | 7 |
| ARESO | "Usoa" | Txomin Gereño | 60 | 10.000 Pta | 53 | 1 |
| URDAZUBI | | | | | | |
| ZUGARRAMURDI | | | | | | |
| NARBARTE | "Baztango | | | | | |
| OIEREGI | ehizilari | | | | | |
| BAZTAN | elkartea" | Andres Agerrea | 1.030 | 5.000(1) Pta | 167 | 4 |
| BEINTZA-LABAIEN | | | | | | |
| URROTZ | | | | | | |
| OITZ | | | | | | |
| SALDIAS | | | | | | |
| DONAMARIA | "Ezpela" | Jabier Madariaga | 300 | 4.000 Pta | 22 | 7 |
| BERA | "Berako E.A.E." | Manolo Romero | 300 | 7.000 Pta | 54 | 1 |
| LEGASA | "Biherri- | Miguel Andresena | 43 | 16.000(2) Pta | 30 | 3 |
| DONEZTEBE | Beharzana" | Oskar Mindegia | 108 | 6.000 Pta | 47 | 2 |
| ELGORRIAGA | | | 25 | | 8 | |
| ITUREN | | | 65 | | 28 | 1 |
| ZUBIETA | "Mendaur" | Ixidro Bazterrika | 60 | 5.000 Pta | 14 | |
| ERATSUN | "Latargi" | J. Martin Retegi | 60 | 15.000 Pta | 22 | 0 |
| ETXALAR | "Usoa" | Luis Mari Maia | 185 | 9.000 Pta | 88 | 3 |
| EZKURRA | "Txantxangorri" | Agustin Gastearena | 49 | 20.000 Pta | 43 | 1 |
| IGANTZI | "Abelu" | Martxel Loiarte | 150 | 3.000 Pta | 74 | 0 |
| LEITZA | "Leitzako E.E." | Jose Miguel Largo | 360 | 12.000 Pta | 104 | 2 |
| LESAKA | "Pagolleta" | J.M. Etxeberria | 356 | 4.000 Pta | 99 | 5 |
| SARA | "ACC" | J.M. Narbarte | 186 | 1.160 Lib. | 44 | 0 |
| SENPERE | "ACC" | J.M. Dorratzague | 250 | 200 Lib. | 70 | 0 |
| SUNBILLA | "Bidasoa-Berroaran" | Florentino Gelbenzu | 170 | 10.000 Pta | 29 | 3 |

(1) Bazkide sariaz gain ehiza-barrutia ere ordaindu behar dute. Baztandarrek 10.000 Pta. baztandarrekin espostuek 18.000 Pta eta kanpotarrek 25.000 Pta.
(2) Herrikoekin espostuek 22.000 eta kanpotarrek 40.000.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

**Helbidea:**
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
**Internet:**
http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi-ttapa@topagunea.com

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA. **Presidentea:** Pello Apezetxea. **Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien. **Zuzendaria:** Aitor Arozena. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogortza. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Martine Goietxe, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogortza. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra... **Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Bortziri-etako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**
Hego Euskal Herria . . . .2.000 Pta.
Ipar Euskal Herria . . . . .140 Libera
Europa . . . . . . . . . . . . . .3.500 Pta.
Amerika . . . . . . . . . . . .15.000 Pta.

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



GAURKOTASUNEKO GAIA

# Baztango UPNk ez du Udal Batzordeetan parte hartuko

## Gehiengo absolutua izanen balu bezala ari da jokatzen EA



Leopoldo JAEN
UPNko zinegotzio

EAk eskaini zigun Udal Batzorde kopurua ez zetorren bat gure botu kopuruarekin, azken finean eurek baino 80 boto guttiago bakarrik lortu baikenituen. EA gehiengo absolutua lortu izan balu bezala ari da jokatzen.
Ez zaigu ongi iduritu Batzordeen egituraketa, eskaini zizkiguten komisio guzietan alkatea baita lehendakaria. EAren bi zinegotzi daude bakoitzean, bi gureak eta bat EHkoa. Beraz, bozketetan gehiengoa eurena izanen zen beti, eta horrela ezin da lanik egin. Egiten duguna egiten dugula eurek erabakiko luketegure proposamena aitzinera eraman edo ez.
Beraz, ez dugu ardurarik hartu, eurentzat utzi ditugu denak. Gu bokal gisa egonen gara komisio guzietan, eta plenoetan erabakiko dugu zer bozkatu.
Bertzalde, zer pentsatua eman digu EAren jarrerak, EHrekin kontaktuak izan dituelako eta gurekin batere ez. Gu saiatu ginen negoziatzen, eta proposamena luzatu genien, bainan EAk erabakia hartua zuen dagoeneko.
Bertzalde, Eskola Publikoan eta Zahar Etxeko komisioetan parte hartuko dugu, batzorde hoiek ongi funtzionatzen dutelako. Udaletxekoek, berriz, ez, eurek direlako gehiengoa eta eurek erabakitzen dutelako.

## Jendearen aitzinean beuren arrazoiak eman beharko dituzte



Patxi OIARTZABAL
Baztango alkatea. EA.

Ez dut ulertzen UPNren jokabidea, emanak genizkien ardurak gureak bezain garrantzitsuak zirelako. Erabaki politikoa baldin bada bakarrik uler daiteke.
Guk egin genuen eskaintza nahiko eskuzabala zela iduritu zitzaigun hasieratik, nahiz eta EH eta UPN ados egon ez. Beraiek egiten zizkiguten eskakizunak ez ziren logikoak, lehengo legealdian genituen ardura berdinak hartzea proposatzen baitzuten.
Ze ondorio izanen duen UPNren erabakiak? Batetik, lan gehiago izanen dugu, bai EAk zein EHk, beraiek nahi ez dituzten hiru Batzordeak gure artean partitu beharko ditugu-eta. Bertzalde, jendearen aitzinean ere beuren arrazoiak eman beharko dituzte. Zergatik erabaki dute garrantzitsuenetakoak diren hiru Batzordeei uko eginez Udaletxean ez egotea? Bertze alde batetik, hagitz arraroa da Eskola Publikoan eta Zahar-etxean egon nahi izatea. Hori heldutasun politiko eza iduritu zait. Horregatik erran nien nik ezin zela gauza bat edo bertzea aukeratu, 'dena edo deus ez' hautatu behar zutela. Gainera, batzordeen funtzionamenduaz ezjakintasuna erakutsi dute, ez baita posible Zahar-etxeko ordezkaritza edukitzea Ongizate Batzordean egon gabe.

## UPN gabe kontraerran guttiago izanen dugu Udal Batzordeetan



Mikel ALTZUART
EHko zinegotzia

Hauteskundeen ondotik, EAk nahi zituen Udal-batzorde edo komisioak hartu zituen beretzat, EHri bat eskaini zion eta UPNri hiru. Proposamen itxi hori aurkeztea kritikatu genuen bai EHk bai UPNk ere. Hala ere, Euskal Herriak bizi duen unea ikusirik, Udalean lan eginez EArekin lotura edukitzeko aukera ikusi genuen, eta gure ardura onartzea erabaki genuen.
Guk EAri hasiera-hasieratik eskatu genion UPN Udal-gobernutik kanpo uztea. Alde batetik, postura erabat antidemokratikoa mantendu dutelako betidanik Baztanen, eurek gehiengoa izan dutenean inoiz ez baitute utzi bertze taldeei parte hartzen. Gainera Udala interes partikularretarako erabili dute, ez herriaren tresna bezala... Hori jakinik, ez zen ulergarria EAk haiengana jotzea.
Dena den, UPNk Batzordeetan parte hartzeari uko egin dionez, aukera izanen dugu bi talde abertzaleek elkarrekin lan egiteko. Horrela kontraerran guttiago izanen dela pentsatzen dut.
Bertzalde, Eskola Publikoan nahiz Zahar-etxean Udalaren ordezkaritzaz arduratzeko nahia kargiera kusten du etiketa faltsuarekin aurkeztu nahi dutela beren burua. Nabari da interes partikular hutsa dela hori.

ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

**ARTEKARI TALDEA**
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
**LESAKA:**
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
**BURLATA:**
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328•133346. Faxa: 948133713
**Non:** La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

**DESKONTUAK**

**MEKANIKA**

**MENDAUR MOTOR**
MEKANIKA • TXAPA
ELEKTRIZITATEA • GARBIKETA
AUTO SALMENTA
Leitzako bidea
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 03 33
- **% 10 merkeago** neumatikoetan

**ZALAIN MOTOR**
KONPONKETA ETA SALMENTA
Ubela industrialdea • BERA
Tfnoa.: 948 63 11 57
608 77 80 23
- **% 5 merkeago** errekanbioetan

**SANSIÑENA GARAJEA**
Zerbitzu Ofiziala
Santiago, 37 ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 04 06
- **%10 merkeago olioa aldatzea**

**SAMPI ARAGON**
VOLKSWAGEN - AUDI
Zerbitzu Ofiziala
Leitzako bidean
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 03 54
- **%10 merkeago** neumatikoetan

**ZAPATAK**

**Goñi**
Santiago,47
ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 01 62
- **%10 merkeago** (2.000 ptatik aurrera)

55 ZERBITZU ETA SALTOKIETAN




# TTIPI TXARTELArekin beti irabazten da

Zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago irabaziko duzu.
Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA
☎ **948 63 11 88**

## Iruritako Garagardo Besta; **SARIDUNAK**

Jasone Mitxeltorena **(Etxalar),** Mikel Gereka **(Ituren),** Anttoni Ariztia **(Urdazubi),** Iñaki Mitxelena **(Etxalar),** Maria Elena Sansiñena **(Elizondo),** Juanita Goñi **(Elizondo),** Estitxu Urriza **(Elizondo),** Asier Gogortza **(Bera),** Rosa Galarregi **(Elizondo)** eta Joseba Urrotz **(Urrotz).**



**MIKEL LABOA**

Berako Kultur Etxean **urriaren 9**an eginen duen kantaldirako
**4 sarrera** zozketatuko dira TTIPI TXARTELA dutenen artean.
Zozketan parte hartzeko, deitu urriaren 1a baino lehen 948 63 11 88ra.

**DESKONTUAK**

**ARROPAK**

**ALBERTO**
SEAT ZERBITZU OFIZIALA
Baztan-Bortziriak-Malerreka
Santiago, 88 ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 02 25
- **%10 merkeago bateriak eta amortiguadoreak aldatzea**

**IPINGI**
ARROPAK
OSAGARRIAK
ESKULANAK
Santiago, 88 ELIZONDO
Tfnoa.: 948 58 09 39
- **%10 merkeago** 5.000 Ptatik goitiko erosketetan

**ESTETIKA**

**Amaya**
Ameztia • DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 01 63
- **%10 merkeago opari artikuluetan eta % 5 kosmetikan**

**PETTI**

KOLABORAZIOAK

☞ **Patxi GORRAIZ** *ITOIZ Koordinakundeko bozeramailea*

# Itoiz bizirik, segurtasun osoz



**M**aiz darabilkigu Itoiz ahotan, baina urtegiaren aurka egindako lanagatik ez balitz, proiektua aurrikusi bezala 97an bukatua egonen litzateke, eta gaurgero ahantzia. Baina ez da hala gertatu. 14 urte dira Koordinakundea eratu zenetik eta orain arte egindakoak argi erakutsi du proiektuaren bideraezintasun hidrologikoa, ingurugiro, gizarte eta ekonomikoa. Gainera, Auzitegi Gorenak proiektua deuseztatu du, honen aurka epai tinko eta behin-betikoa emanez, naturgune babestuetan duen eraginagatik. Beraz, Itoizen ezin da egon 506. kotatik goiti urperatuko duen urtegirik (9,7 hm³). Deuseztutako proiektuan 590 metroko kotara ailegatzea aurrikusten zen (418 hm³).

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Naturguneen lege berria onartu zuen, aipatu naturguneen eremua azpiko aldetik murrizteko, eta gisa horretan epaiak agindutakoa ez betetzeko. Entzutegi Nazionalak, Koordinakundeak hala eskatuta, lege honekiko errekurtsoa aurkeztu zuen Auzitegi Konstituzionalean. Egun, epai horren zain gaude, jakinik, ez dela Itoiz afera bakarrik epaitzen, baizik parlamentu batek berak bete ez duen legea aldatzeko eskumena duen ala ez. Gaur egun Itoitzen ez dago obrarik, eta urtegia ezin da burutu epaileak hala erabakita.

Nafarroako Ubidea ez da ureztatze plan nazionalean sartzen, eta ubidea egitekotan ere, ezingo luke urik hartu, hartunea edo "toma" uraren gehienezko alturatik 29 metro goitiago baitago. Honez gain, azkeneko bi urtetan segurtasun arazoak ikertu ditu Koordinakundeak: Zaragozako Unibertsitateko Geodinamika irakaslea den Antonio Casas jaunak Itoizko ezkerraldeko magalean dauden arriskuak aipatzen zituen. Bertan hiru milioi m³ lur irristatzeko arriskua dago. Goitixeago, 21 milioi m³ lur mugitzeko arriskua dago, ondorioak areagotuz. Administrazioak ez du txosten aurkako iritzirik plazaratu.

**Itoitzeko pareta nagusiaren ezkerreko magalean 3 milioi m³ lur irristatzeko arriskua dago. Goitixeago, magal berean, bertze 21 milioi m³ lur mugi daitezke.**

Urralburu eta Aragonen garaian "Itoizko urtegiko ezkerreko magalaren irristatze arriskuak" izenburupean egindako ikerketa ere ezkutatu dute. Berriki Koordinakundeak zenbait dokumentu ofizial eskuratu ditu, bertan urtegiko bi paretak "arrisku haundikoak" direla diote. Gauzak horrela, eta administrazioak proiektua burutzeko erakutsi duen itsukeriaz fido ez garenez, manifestazioa deitu dugu urriaren 2an, Iruñeko autobus geltokian.

☞ **Antero ETXANDI** *Baztango ehiza-barrutiko lehendakari-ohia*

# Kontu batzuk Baztango ehizturien gainean



**B**aztango ehiza-kotoaren barrenean Urdazubi, Zugarramurdi, Oieregi eta Narbarte ere sartuak daude, beraiek ez baitute lur-eremurik aski. Orain 40.000 bat hektarea ditu Baztango kotoak, Nafarroako haundiena da Bardeekin batera.

Ehiza-barrutia gestionatzeko modua erraxagoa da horrela, ttikiak zailagoak izaten baitira beti, eta ehizturiendako garestiagoak gainera.

Oro har, ehizturie arras komodoa da Baztanen, eta uste dut toki gehienetan ere hala dela. Iduritzen zaie ordaindu ezkero denetarako eskubidea dutela. Hemen lehendakariak, idazkariak eta denek musutruk egiten dute lan, eta ehizturiak beti hoien kontra arrenkuraka ibiltzen dira gainera. Ez bada uso pasarik heldu beti izaten dute puestoarendako erran beharrak, edo juntarendako... beti norbaitek du kulpa. Eta azkenean zer gertatzen da? Ez duela inork ardura hori hartu nahi izaten. Baztanen 1.030 bat ehizturi gara eta denen artean zozketa egin behar izan genuen lehendakaria hautatzeko.

Bertzalde, untxi eta faisai granja jarri genuen duela 7-8 urte birpopulaketak egiteko. Martxan jarri arte sosa gastatu behar izan zen, bainan herri batzuetakoek ez zuten sosik jarri nahi. Azken lau urtetan untxiak hazten saiatu gara hor eta gero mendian paratzen, koneju ehiza beharbada ehizi politena delako. Aurten dagoeneko 360 untxi bota ditugu, eta bertze 200 bat libratuko ditugu oraindik. Faisaiak ere bakar batzuk utzi ditugu mendian. Galeperrak eta uso batzuk ere hazten ditugu.

Urriaren 2an idekiko den uso ehizari buruz, berriz, zera erran behar dut: nere ustez usoa lehen bezainbat edo gehiago pasatzen dela. Gertatzen dena da, lehenago Iparraldean ez zela horrenbertze tiratzen. Orain edozein tokitan egiten dituzte puestoak, han ez dute hemengo neurririk hartu beharrik. Hemen lege batzuk daude, toki batean hainbertze puesto, batetik bertzera honenbertzeko tartea... han bere belagian nornahik puestoa egiten ahal du.

**Iparraldean usoei aurrera tiratzen diete, eta okertu edo desbideratu egiten dituzte aunitz tokitara. Horregatik ez da sartzen usoa lehenago bezala.**

Bertzalde, Iparraldean usoei aurrera tiratzen diete, eta okertu edo desbideratu egiten dituzte aunitz tokitara. Horregatik hemen ez da sartzen usoa lehen bezala. Gero, honat etortzen den pixarrari, nola altu xamar heldu diren, perdigoi larriekin tiratzen diete lehendabiziko harrapatzen dituztenek. Usoei beren tokira sartzera utzi behar zaie, ez baldin bada zuretzako ongi hurrengo lepokoendako utzi behar litzateke. Baina ez da horrela. Hemen iduri du ehizturirik hoberena etxera uso gehien eramaten dituena dela.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Nafarkaria 99ko irailak 17

*«Herritarrak izuturik zeuden lehendabiziko urtean, uste baitzuten etorriko zirela punkiak, txima luzea eta drogazaleak, eta herria suntsituko zutela. Baina herria bete zen, ez zen deus gertatu, eta jende guzia arrunt pozik gelditu zen. Aurten herri osoa saiatu da hau aitzina ateratzen.»*

**Angel BIELA**
Iruritako Garagardo Bestaren antolatzailea.
IRURITA
Nafarkaria 99-09-17

*«Xareta elkartearen barrenean Zugarramurdi eta Urdazubirekin izan ditugun harremanek muga artifiziala dela erakusten dute».*

**Jean ANIOTZBEHERE**
Sarako auzapeza.
Gara 99-09-14

## 11 GALDERA LABUR



**Itziar IGUZKIAGIRRE**
IGANTZI
Biltoki elkarteko lehendakaria

- **Zerk bete zaitu gehien Biltokin egindako lanean?**
- Egiten diren gauzetan, jendearen partehartzeak betetzen nau.
- **Modua izanez gero, zer aldatuko zenuke Biltokin?**
- Agian, Junta berritu behar denean bazkideek beren burua aurkeztea.
- **Zure ametsetako bidaia?**
- Basamortua zeharkatu karabana batean.
- **Nora ez zinateke joanen?**
- Ez da horrelako lekurik neretzat.
- **Zein opari dituzu gustokoenak?**
- Opariak izanez gero, denak gustokoak.
- **Gosaria kafesnearekin edo platerean nahiago?**
- Etxean, katilukada abena edo malutak; kanpoan kafesnea.
- **Hiri batean bizitzen ikusten al duzu zure burua?**
- Itsasoa duen hiri batean, bai; bertzela Igantzin.
- **Astean zehar, zein da zuretzat momenturik gustokoena?**
- Atsegin dut ohatzean irakurtzea; beraz, hori da momenturik gustokoena.
- **Eta euskal kanta bat aukeratu behar bazenu?**
- Benito Lertxundiren kanta guziak, Erribera errate baterako.
- **Bestetako programatik zer aukeratuko zenuke?**
- Adin guziak kontutan hartzen direnez, ongi iruditzen zaizkit egiten diren gauzak.
- **Lagunekin afaltzeko, elkartea edo jatetxea nahiago?**
- Hori, lan egiteko gogoaren arabera.





Kukubiltxo Taldea

'KUKUBEL'

NON: Etxalarko frontoian

NOIZ: Urriaren 3a, igandea

ORDUA: Arratsaldeko 6etan

ANTOLATZAILEAK:

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNIDADEA

Nafarroako Gobernua — Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia

SARRERA DOHAINIK

☞ IRAKASKUNTZA

## 1999-2000 Ikasturtea: Matrikulazio datuak

### Eskola publikoak

| | Adinaren arabera | | | Euskara eredua | | | Guzira | 3 urtekoak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Haur H. | Lehen H. | DBH | A | B | D | | |
| Arantza | 5 | 27 | 13 | - | - | 45 | 45 | 1 |
| Areso | 8 | 15 | - | - | - | 23 | 23 | 5 |
| Baztan(1) | 64 | 113 | - | 13 | - | 164 | 177 | 19 |
| Beintza | 1 | 14 | - | - | - | 15 | 15 | 0 |
| Bera | 38 | 45 | - | - | - | 83 | 83 | 23* |
| Bertizarana(2) | 13 | 34 | - | - | - | 47 | 47 | 7 |
| Doneztebe | 88 | 172 | - | 19 | - | 241 | 260 | 29 |
| Elizondo | 61 | 144 | - | 69 | - | 136 | 205 | 21 |
| Eratsun | 4 | 6 | - | - | - | 10 | 10 | 0 |
| Etxalar | 14 | 39 | - | - | - | 53 | 53 | 2 |
| Goizueta | 22 | 51 | 17 | - | - | 90 | 90 | 5 |
| Igantzi | 15 | 29 | - | - | - | 44 | 44 | 9 |
| Ituren | 12 | 35 | - | - | - | 47 | 47 | 3 |
| Leitza | 66 | 169 | - | - | - | 235 | 235 | 23 |
| Lesaka | 45 | 68 | - | - | - | 113 | 113 | 24* |
| Saldias | 1 | 7 | - | - | - | 8 | 8 | 0 |
| Sara | | | | 25 | 90 | - | 115 | |
| Senpere | | | | 116 | 116 | 0 | 232 | 26 |
| Sunbilla | 11 | 30 | - | - | - | 41 | 41 | 4 |
| Urd-Zugarra | 12 | 19 | 5 | 2 | 11 | 23 | 36 | 4 |

(1) Baztango herrietako ikastetxe guzietako datuak batera, Elizondoko San Fco Javier ezik
(2) Legasa eta Narbarteko ikastetxetako datuak batera
A eredua: erdara hutsean; B eredua elebiduna: D eredua euskara hutsean

### Ikastolak

| | Adinaren arabera | | | Guzira | 3 urtekoak |
|---|---|---|---|---|---|
| | Haur H. | Lehen H. | DBH | | |
| Bera | 31 | 95 | 88 | 214 | 16 |
| Elizondo | 43 | 121 | - | 164 | 14 |
| Lesaka | 25 | 51 | - | 76 | 9 |
| Sara | 15 | - | - | 15 | 3 |
| Senpere (3-11 urte) | | | | 50 | 5 |

### Pribatuak

| | Haur H. | Lehen H. | A | B | 3 urte |
|---|---|---|---|---|---|
| Bera | 23 | 61 | 14 | 70 | 9 |

Sara 80 haur, 60 elebidunak, 20 frantses hutsean Senperen

### Institutuak

| | DBH | H.Z. | Batxil. | A | B | D |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Bera | 219 | 59* | 98 | 98 | 94* | 184 |
| Doneztebe | 223 | - | - | 29 | - | 194 |
| Elizondo | - | 108 | - | - | 108 | - |
| Leitza | 184 | - | 78 | 4 | - | 258 |
| Lekaroz | 309 | 24 | 141 | 140 | - | 334 |
| Senpere | 190 | 210 | | 400 | | |

* Heziketa Zikloan teorian ez da hizkuntz eredurik: ikasleak nahi duen hizkuntzan ematen da. Guk B eredukoak balira bezala sartu ditugu.

# 4.403 ikaslek hasi dute 1999-2000 ikasturtea

## Hiru ikasletatik bik euskara hutsean ikasiko dute

4.403 ikaslek hasiera eman diote 1999-2000 ikasturteari eskualdeko ikastetxeetan. Horietatik 3.687 derrigorrezko hezkuntzan arituko dira (594 Haur Hezkuntza edo Ama Eskolan, 3 eta 6 urte artekoak); 1.345 Lehen Hezkuntzan, 6 eta 12 urte artekoak) eta 1.248 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo Lizeoan (12-16 edo 11-15 urte artean).

Gainerako 716 ikasleak, Batxilergoa, Heziketa Zikloak edo Heziketa Berezian eman dute izena.

Euskarari dagokionez, aipatu 2.907 ikaslek (%66) euskara hutsean burutuko dituztela beraien ikasketak, 549k euskaraz eta erdaraz eta 947k erdara hutsean.

Nabaria da, halere, zenbat eta ikaslearen adina ttikiagoa izan, orduan eta gehiago direla euskara hutsez ari direnak. Adibidez, aurten, 3 urterekin klasean hasi diren 261 haurretatik hamarrera ez dira ailegatzen erdara hutsezko eredua hautatu dutenak, guziak Baztanaldean eta Saran. Bortzirietan, 12 urteak arte apenas ez dago ikaslerik A ereduan (erdara hutsean).

Erdara hutsean ari direnen gehienak, aldiz, hamabi urtetik goitikoak dira.



J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
✆ 948631342 BERA•✆ 948637172 LESAKA

E D A R I A K
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27



✆ 948631076 • BERA

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.
✆ 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

## BERA

# 250 dantzarik parte hartuko dute V. Dantzari Ttiki Egunean

### Igande honetan ibiliko dira herriko karriketan

ASIER GOGORTZA

Igandean ospatuko da Beran VI. Dantzari Ttiki Eguna. Aurten 6 herritako ume eta gaztetxoak etorriko dira euren dantzak erakustera: Berakoak, Lesakako *Irain* dantza taldekoak, Dimako *Gaztebarri* taldekoak, Amurrioko *Aiala*koak, *Urki* Andoaingoak eta Gipuzkoako bertze talde bat, oraindik zehaztu gabe dagoena. 6 eta 15 urte bitarteko 250 dantzari juntatuko dira deneta-ra, eta auzoz auzo ibiliko dira goiz-goizetik. Ondotik, jaialdi nagusia arratsaldeko 5etatik 7tara eginen da Eztegara pilotalekuan.



### Mikel Laboaren kontzertua Kultur Etxean

Bortzirietako Euskaltegiak kantari mitiko honen kontzertua antolatu du heldu den hilabeterako, urriaren 9rako hain xuxen ere. Berako Kultur Etxean izanen da kantaldia, eta orain loratzen ari den bakarlari batek, Pettik, eginen ditu telonero lanak.
Sarrerak laster jarriko dira salgai Errekalden eta Lesakako Euskaltegian, bertzeak bertze. TTIPI-TTAPAK, bere aldetik, kantaldirako sarrera batzuk zozketatuko ditu TTIPI-TXARTELA dutenen artean. Laboaren kontzertua inolaz ere galdu nahi ez duzuenontzat oharra: erne ibili, Berako Kultur Etxean 300 lagun bertzerik ez baita sartzen…

### Sendabelar ikastaroa

Sendabelarrak bereizten eta erabiltzen erakutsiko dute Uxua Emakume Taldeak antolatu duen ikastaro honetan. Urriaren 2an hasita, larunbatero-larunbatero goizeko 9,30etatik 1etara eginen dira saioak, eta abenduaren 4an akautuko da ikastaroa. Izen-ematea 15.000 pezeta gostako da, eta honako telefono honetara deitu beharko da: 948 630 722 (Anttoni). Ikastaroa Iamotenean eginen da, eta Gure Txokoa elkarteko kideek %15-eko deskontua izanen dute matrikula ordaintzeko orduan. Ikastaroa erdaraz izanen da.

### Anetora

Agerra Mendi Taldeak Aneto mendira ateraldia eginen du irailaren 25 eta 26ko astebururuan. Lleida eta Huesca arteko mugan kokatua, Aneto da piriniotako mendirik altuena –3.404 metro– eta kranpoiak eramatea gomendatu dute antolatzaileek. Bi egunetarako jana ere norberak eraman beharko du. Informazio gehiago nahi duenak 948 63 41 99 telefonora deitzen ahal du, eta Xabierretaz galdetu. Izen-ematea irailaren 22a baino lehen egin behar da.

### 'SOS Angola' janari bilketa kanpaina

Angolara elikagaiak bidaltzeko bilketa-kanpaina martxan da Beran. Irailaren 24ra arte, hau da, ortzirala bitarte, *'Behar Bidasoa'* ONGko boluntarioak egonen dira Suhiltzaileen parkean, arratsaldeko 4etatik 7ak arte. Lekariak eta esne hautsa eskatu dute Afrikako herrialde horretako jendeak laguntzeko. Kanpaina honetan biltzen dituzten elikagai guziak urrian bertan bideratuko dira zuzen-zuzenean Angolara.

## flash

**Udal zergak**
Urriaren 6a arte zabalik dago aurtengo apiriletik ekainerako uraren ordain-agiria ordaintzeko epea. Borondatez ordaindu ezean, urriaren 6tik aitzinera exekutibo bidez kobratuko dituzte, sortzen ahal diren errekargu eta interesekin.

**Lurraren Eguna**
Urtero urriko azken igandearekin egiten baldin bada ere, aurten, aste bat beranduago ospatuko da baserritar eta artisauen, urriaren 31n hain zuzen ere.

**Bertso eskola**
Bortzirietako bertso eskolak Beran ematen dituen ikastaroetan apuntatu nahi duenak oraintxe du aukera, 948 637 138 telefonorat deituz (Estitxu). Adin guzietako bertsozaleendako idekiak dituzte ateak.

**Ordezko Gizarte Zerbitzua**
1993an Kontzientzia-eragozleen Gizarte Prestazioarekin sinatutako akordioa deuseztatzea erabaki du Berako Udalak. Orain arteko objetoreen fundamentu eskasa eta hoien gaineko kontrol eza izan dira, bertzeak bertze, Udalak eman dituen arrazoiak. Gai honen inguruko informazioa emanen zaie gazteei Udalean.


BOTXO OSTATUA
© 948630052•Zalain•BERA

GOZOTEGI-JAIONE
Altzate, 19•948630786 •BERA

ie Iriarte-Echandi, S.L.
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak
Kanttonberri 1• BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

zapatak
osagarriak
konponketa
kalotxa
Kanttonberri 6 Bera
© 948 631516

## ☞ LESAKA

# Euskarazko irakurketa sustatzeko kanpaina Bortzietako euskaltegian

### Gure hizkuntzan leitzeko ohitura sortzea da helburu nagusia

AITOR AROZENA



**189 neska-mutikoek hasi dute ikastaro berria Irain eskolan eta Tantirumairu ikastolan. Ikastolak, 25. urteurrena ospatzen du aurten.**

Euskarazko irakurketa sustatzeko eta lantzeko asmoarekin, eskaintza bikaina egin dute ikasturte honetarako Bortzirietako Euskaltegiak eta Euskaldunon Egunkariak: 12.000 pezetaren truke, 50 orduko ikastaroa eta Euskaldunon Egunkariaren hiru hilabeteko harpidetza (egunero jasoko dute Egunkaria etxean). Euskaltegian dagoeneko ikasten ari diren gainontzeko ikasleek ere izanen dute aukera harpidetza prezio merkeago batean lortzeko, hau da, 7.525 pezetaren truke hiru hilabeteko harpídetza, nahi duenak urte osoan luzatzeko aukera izanen duelarik.

Kanpainaren antolatzaileen ustez, arrazoi ezberdinengatik aunitz dira oraindik euskaraz irakurtzeko ohitura barneratu ez duten euskaldun eta ia euskaldunak. Ohitura horiek aldatzen joan daitezen, garrantzitsua da euskaraz irakurtzeko dituzten zailtasunak gainditzeko laguntza teknikoa eskaintzea euskaltegietan.

Kanpaina honek, Bortzirietako euskaltegiak urtero egiten duen matrikulazio kanpainarekin bat egiten du. Bietako edozeinetan izena emateko Matxinbeltzeneara joan behar da edo 948 637796 telefonora deitu.

## Tantirumairu ikastolaren 25. urteurrena ospatzen hasi dira

Aurtengo ikasturtean 25. urteurrena ospatzen dutela eta, zenbait ekitaldi antolatzen hasi dira Tantirumairu ikastolan. Lehendabizikoa igande honetan burutu dute, Cabarcenoko natur parkera bidaia, hain xuxen. Goizean goiz jendez gainezka zegoen autobusa abiatu zen Santander aldera eta bertako animaliak ikusi ondotik pozez txoratzen bueltatu ziren. Ikastolarekin harremana izan duten belaunaldi ezberdinak elkartzeko ere aitzaki polita izan da bidai hau. Hemendik aitzinera bertze zenbait ekitaldi prestatuko dituztela iragarri dute.

## Iruñeko Unai Garbisuk irabazi zuen VI. Xake Irekia

Iruñeko Unai Garbisuk irabazi du aurten Beti Gaztek seigarren urtez antolatutako Lesakako Herria Nazioarteko Xake Irekia. Guzira 93 xakelarik hartu zuten parte udal pilotalekuan jokatutako lehiaketan eta Garbisuk zortzi puntuetatik zazpi lortu zituen, sei partida irabazi eta bi berdinduz. Herrikoei dagokienez, Xabi Iribarren, Juanjo Guerrero eta Xabier Terreros izan ziren onenak. 69. postuan sailkatu zen Eneko Baraiarrek ere 4.000 pezetako sari berezia jaso zuen.

## flash

**Izotzaldeko ur-hornidura lanak**

Hirurteko Plangintzaren barnean sartu du Nafarroako Gobernuak Izotzaldea auzoko ur-hornidura lanak. 34 baserrietara ura eramanen duen lan hauen aurrekontua 72.597.653 pezetakoa da eta horietatik 43.341.490 Nafarroako Gobernuak paratuko ditu.

**Arduradun berria jubilatuen egoitzako ostatuan**

San Fermin jubilatu elkarteko egoitzaren ostatuak arduradun berria izanen du hemendik aitzin. Astelehenean akautzen zen proposamenak aurkezteko epea. Orain arte arduradun izan den Kotteri eskerrak ematea bertzerik ez zaigu gelditzen, prentsari emandako errextasunengatik.

**Dirulaguntza Maderas Erkizia enpresari**

Nafarroako Gobernuko Nekaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduak zenbait enpresei emandako dirulaguntzen barnean, 7.660.000 pezeta eman ditio Maderas Erkizia, S.L. enpresari, oihangintza tresnak erosteko.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 948627573 • LESAKA

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41• ✆ 948637518
LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

## ☞ ETXALAR

# Kultur Egunak urriaren lehen hiru egunetan

Etxalarko Euskara Batzordeak eta Bortzirietako Euskara Mankomunidadeak plantatu ditu

PELLO APEZETXEA

Urriaren lehen astebururuan burutuko dira Kultur Egunak. Urriaren lean, ortziralean, Joxe Landa mintzatuko da. Gaia: Eguraldia eta ilargiaren eragina. Eskola zaharretan, 8etan.

Urriaren 2an, larunbatean, Marsel magoaren emanaldia. Hau ere eskola zaharretan, 6etan.

Igandean, berriz, urriaren 3an, Kukubel izeneko antzerkia eskeiniko du Kukubiltxo taldeak. Hau pilota-plazan izanen da, arratsaldeko 6etan.

### Uso ehizarako postuen subasta motela

Buruilaren 11n egin zen aurtengo ehiza denboraldirako postuen enkantea. Eguraldia beroa bazen ere, ehizturien sakeletan ez zuen hala iduri. Iazko sosaren erdia ere ez du hartuko aurten Udalak, 3 milioi pezetatan gelditu baita dena, aintzineko urtean 6 milioi eta erdira ailegatu zen bezala.

Postu batzuri sesta eman diote, noski, baina ez du horrek aldaera haundirik eraginen. Aipatzekoa da ze nolako diferentziak izaten diren, ehiza enkante honetan, urte batetik bertzera. Iaz 1.379.000 pezeta ordaindutako 10 zenbakia duen postua, 167.000tan gelditu da. Eta orduan 740.500etan hartu zutenari, 13. postua, aurten 125.500 bertzerik ez diote eskeini. 507.000 pezetakoa da aurtengo garestiena, sareko 1 zenbakiduna.

### Santa Kruz eguna ermitan

Astelehuna izatearekin, lantegietara eta eskoletara joan beharrak lotzen du hainbat jende. Hala ere, eta zeruak negar pixka bat eginagatik, mezan eta ondoko hamaiketakoan jende talde politak hartu zuen parte.

### Santa Krutzeko zubia moldatu dute

Zubiko paretak aspalditik erortzen ari ziren. Itxura txarraz gain, arriskua ere bazen. Orain konpondu ditu Udalak, Santa Krutz egunerako, hain zuzen.

### Ur eskasiaren hasmentan etorri da euria

Ureskasia, neurri batean bederen, sufritzen hasiak ginelarik, etorri da euria. Bazterrak bustitzeko murrizketak aginduak baitziren dagoeneko. Hau ere azpimarratzeko moduko berria da gure herrietan, ura murriztea, alegia, urtean zehar hainbertze euri egin eta gero.

### Posta zerbitzuan aldaketak

Fidel Cruzek postako lana utzi du, erretiroko adina bete duelako. Momentuz ordezko bat izendatu dute, Arantzako Jon Larretxea. Gero lanpostua lehiaketa bidez beteko omen da. Fidelek posta laneko tokia bere etxean zuenez, orain bertze baten beharra dago, eta Udalari eskatu diote. Lehen Gizarte Laguntza edo Asistentzia Sozialeko bulegoa izandakoa paratu dute, oraingoz, korreoko lan horretarako. Gero, behar bada, eskola zaharretan prestatuko dute. Postari berriak dioenez, kartetan etxeetako direkzioneak zuzenago eta osoago paratzeko beharra omen da, zuzen eta erraz banatzea nahi bada; baserria edo karrikakoa den, auzo izena eta gaurko zenbakia, etabar.



**Postuen subastan kanpokoak izaten dira protagonista, baina herriko ehiztariak ere denboraldi berriaren esperoan daude.**


Manuel Zamorano
Bernizadurak
Pintura orohar
☎ 689 042 671 • 948 637556
Bittiria, 37 • LESAKA

Txema Etxarte
Zolen akutxilatze eta bernizatze profesionala
✆ 948 637439 • 31700 LESAKA

Beko Errota
Lore eta landareak
✆ 948 63 78 26
Frain auzoa • LESAKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ELENA ENGLISH
✓ Matrikulazio epea zabalik
✓ Helduak (FIRST) eta haurrak
✓ Maila guztiak
Tel.: 670 433 157
LESAKA • ETXALAR


BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ✆ 948 637 503 • LESAKA

## ☞ IGANTZI

# Herriko bestak heldu den asteartean hasiko dira

## Artzain-zakur lehiaketa, berriz, igande honetan izanen da

OSKAR TXOPERENA

Besten egitarau zehatzaerdiko gehigarrian aurkituko duzue.

### Behar Bidasoaren kanpaina

Behar Bidasoak Igantzin duen ordezkaritzak kanpaina berri bati eman dio hasiera. Kanpaina honek Angolako jendea sufritzen ari den gosetea pixka bat arintzea du helburutzat. Etxe guzietara banatu da informazioa eta larunbatean, irailak 25, eginen da bilketa parrokiko zentroan, bederatzietatik ordu bata bitartean. Lau janari zehatz eskatzen dira bertara eramateko: Arroza, garbantzoak, ilarra eta lentejak. Dirua eman nahi duenak, berriz, Nafarroako Kutxan sartzen ahal du Behar Bidasoaren kontuan. Norbaitek etxera eske joatea nahi baldin badu, parrokian erran bertzerik ez du.

### Mendi Bizikleta Ibilaldia

Aurtengoan bai, aurtengoan lortu du Roberto Valcarlos iruñearrak Igantziko proban irabazle ateratzea. Iaz ere hemen izan genuen, baina, erorka baten ondorioz hasi eta segituan utzi behar izan zuen proba. 114 partaide izan zituen aurtengo edizioan bera zen faborito nagusia eta lehendabiziko itzulian bertze txirrindulariekin osatutako talde batean ibili bazen ere, bigarrenean bere nagusitasuna erakutsi zuen. Ondotik Joxe Mª Goia igantziarra sartu zen, Jose Lorenzo Esteban iruñearrarekin lehia bizian. Ez du zorte haundirik izan Joxe Marik denboraldi honetan, baina bere herriko proban, aintzinean ibiltzeko gauza dela erakutsi du. Erran beharra dago, iaz ez bezala, eguraldi bikainarekin joan zela goiz osoa.

Emakumezko bakarra Leire Salas izan zen. Haur mailan Iñigo Almandoz izan zen azkarrena, Josu Taberna eta Iker Estangaren aitzinetik. Infantiletan, Iker Villanieva, Aitor Almandoz eta Mikel Antxordokik osatu zuten podiuma. Kadete mailan, Ander Elizagarai gailendu zen, Ander Villanueva eta Xabier Zubieta gibelean utzita. Juniorretan, Ian Bakerin, Unai Korta eta Mikel Zubieta izan ziren azkarrenak eta Master-40 mailan, azkenik, F.J. Jurado nagusitu zen, J.L. Armendariz eta M. Salvatierraren aitzinetik.

Ondotik, Biltoki Elkarteko antolatzaileek prestatutako hamaiketakoa izan zen txirrindulari guzientzat eta sari eta trofeo banaketarekin eman zitzaion despedida heldu den urteko irailaren 10a arte.



**Arkupeak elkarteko mus txapelketan irabazle**

Pedro Martiarena eta Francisco Txoperena igantziarrak irabazi zuten Hondarribian irailaren 6an jokatutako mus txapelketa. Txapelketa hau Arkupeak elkarteak antolatu zuen, Nafarroako Aurrezki Kutxaren laguntzaz. Igantziarrek Urrozko Jose Arozena eta Jose Aldaberi irabazi zieten.

Argazkia: Diario de Navarra

ANTZUZELAI S.L.
Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317
HARRI NATURALA
ATERATZEA eta LANTZEA
Antzinaldeak, Angeluak, Orma antzinak, Leihoak, Ateak, Arkuak, Pilareak
Tximiniak, Erlaizak, Moldurak, Zokaloak, Hilarriak, Marrazkiak
"Abujardadoa" Zahar antzekoa / Mazizoa Txapeatua
ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK

ZALAIN JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Zalain Auzoa ✆ 948631106 BERA
Boda eta banketeak ematen dira

TXIRULA
Albistur, 39-K ☎ 627542 LESAKA
• bitxikeriak • • opariak • • enmarkazioak •

MOLDAKETAK KONPONKETAK
Gizon eta emakumeen arropan konponketak eta moldaketak egiteko zerbitzu azkarra
RETOUCHERIE de Manuela ®
Colon Pasealekua 64, behea (Trenbideko zubiaren ondoan) ✆ 943 660 292 • IRUN

ALDO OSTATUA
LESAKA

## ARANTZA

# Herria eta Igantziko Benta artean errepidea moldatzeko eskaria egin du Udalak

### Behar Bidasoak Angolara janaria bidaltzeko kanpaina hasi du

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko Etxeak NA-4020 errepideko egoera ikusita, Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamenduari proposamen bat luzatzea erabaki du. Horrela, egin beharko litzatekeen lanak hauek dira: Igantziko Bentatan, Aranaz-Aranatz jartzen duen errotulazioa aldatu; Harrobiko bidegurutzeko errotulazio zikin eta ttikia aldatu; Errepidean dauden ispilu ttikiak aldatu; Herri sarreran abiadura mugatzeko seinalean 50 agertzea eta ez, orain arte bezala, 40; Igantzi-Arantzako N-121-A errepideko bidegurutzea moldatzea, oraingo arriskua eta trafiko haundiari soluzio bat eman nahian; San Juan Xarreko zubiko burnia moldatzea eta NA-4020 errepideko bosgarren eta zazpigarren kurbak moldatzea.



**Igantziko Bentako bidegurutzea moldatzea eta bertan Aranatz dioen seinalea aldatzea eskatu du Arantzako Udalak.**

Artxibokoa

### Behar Bidasoa

Behar Bidasoa ONG Hirugarren Munduaren Lagunak erakundeak deialdi zabal bat egin berri du urrian Angolara janariaz betetako kontenedore bat bidaltzeko. Horrela bada, batez ere oinarrizko jakiak bidali nahi direnez, lentejak eta esnea bakarrik bilduko da. Laguntzeko bi modu ezberdin daude. Alde batetik, janari paketeak eramaten ahal dira parrokiara.

Bertzetik, janarirako dirua hiru kontu hauetako batean sartu:
**Kutxa:** 0114571623
**Euskadiko Kutxa:** 0059870550006992
**BBV:** 3160 0200 13 9412.

### Ingeles ikastaroa herrian

Herriko gazte talde batek ingeles klaseak antolatu nahi ditu herrian. Horrela, apuntatu nahi duenak Zuzaine ostatuan egonen den zerrendan izena eman beharko du.

### Aparkalekuak

Herriko aparkaleku berria egiteko abuztuaren 9an prentsan argitaratutako deialdira ez da inor aurkeztu. Herriko Etxeak egin duen azken bileran Nafarroako eta Gipuzkoako enpresei zuzen-zuzenean informatzea erabaki da. Horretarako, eskabideen aurkezpena Herriko Etxeko idazkaritzan egin beharko da, irailaren 30a arte. Eskabide-eredua ere bertan eskuratzen ahal da.

### Unanu mendia

Nafarroako Gobernuak Unanu mendi inguruan plantazioa egin nahi duela eta Herriko Etxeak informazioa emateko bilera batera deitu zituen auzotarrak irailaren 11n. Auzoko jendeari egin beharreko plantazioei buruzko informazioa eman zitzaion eta gorabehera batzuk izan baziren ere, azkenean lan horiek egiteko erabaki hartu zen.







ALBERGEA
JATETXEA
© 948 634179
ARANTZA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 • BERA
© 948 630 763

SAROBE
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera © 948630735




DROGUERIA MOLINERO
• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia
Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA

## SUNBILLA

# 700.000 kilometro eta 23 urtez oinez egin dituen ibiltaria Sunbillan

### Egunero 50 kilometro egiten ditu Walter Herman Koch alemanak

JAIONE ETA ALBA

Asteotan bisitari berezi bat izan da herrian. Hogeita hiru urtez 700.000 kilometro oinez egin ondotik, irailaren 9an ailegatu zen Sunbillara Walter Herman Koch alemaniarra. Gaur egun 73 urte ditu Koch-ek eta bere ibilaldia apostu bategatik hasi omen zuen: Suitzako enpresari talde batek diru kopuru haundi bat eskaini zion 600.000 kilometro oinez eginez gero. Kilometro gehiago eginen balitu, diru kopurua ere haundituko litzateke eta horixe da oinez segitzeko arrazoia. Gaur egun 1.700 milioi pezeta pilatuak omen ditu. Baina ez pentsa aberastea dela alemaniarraren helburua, txango honen ondorioz lortzen duen dirua hiru proiektutara joanen baita: toxikomanoen erresidentzia batera, osasun mentaleko arazoak dituzten haurren zentro batera eta zahar Etxe batera.

50 urterekin hasi zuen ibilaldia Alemaniako judu honek eta egunero-egunero 50 kilometro egin ondotik etxerantz abiatu da, berea denakobratzeko asmoarekin. Sunbillan egon zen bitartean Salaberria ostatuan hartu zuen aterpea.

## LEGASA



**Santa Leokadia jendez gainezka**
Irailaren lehen igandean, jendez gainezka zegoen Legasako Santa Leokadiako ermita. Batez ere Legasako gazteak hurbildu ziren eguna besta giroan igarotzera, baina herriko jende helduagoak eta Gaztelu eta Malerreka aldetik etorritakoak ere joan ziren.
Argazkia: ZALDUA

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

ttipi-ttapa
internet

NARBARTEKO HERRIKO OSTATUA
Eguneko menua
Etxeko postreak
Betiko sukaldaritza
San Andres 1
Tfnoa: 948 592159
NARBARTE



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab…

H. Lopez
iturgintza
■ Kalefakzioa
■ Gas instalazioak
■ Iturgintza industriala
■ Ureztatze sistemak
Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

## MALERREKA

# Zubietako errotaren ardura hartzeko proposamenak aurkezten ahal dira Udalean

Irailaren 30ean akituko da horretarako aukera

TTIPI-TTAPA

Zubietako errotaren ardura hartzeko proposamenak irailaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira udalean. Errotaren kudeaketa Udalak eta ardura hartzen duenaren artean banatzen da. Herriaren kontu joanen da argiaren gastua eta kudeatzailearen esku, berriz, telefonoa eta ura.

Sarrerako dirua berriz, Udala eta arduradunaren artean banatuko da, honako modu honetan: lau mila bisitari arte %25 Udalarentzat eta %75 arduradunarentzat eta lau mila bisitaritik goiti, %40 Udalarentzat eta %60 arduradunarentzat. Errota hartzen duenak, 120.000 pezeta jarri beharko ditu sarrera gisara eta zerbitzua euskaraz eskaintzeko gaitasuna erakutsi behar du. Hori bai, errotako dendatik eta artoa ehotzetik ateratzen duena beretzat izanen da.

Erran bezala, irailaren 30ean akituko da proposamenak aurkezteko epea eta adjudikazioa biharamonean, urriaren 1ean eginen da. Urtebeteko kontratua sinatuko da ondotik, urtez urte zortzi urte bitarte luzatzen ahal dena.



**Errotako sarreratik eta artoa ehotzetik ateratzen dena arduradunarentzat izanen da.** Artxibokoa

### Oihanetako bideak hobetzeko lanen kontratazioa Iturenen

Oihanetako bideak hobetzeko lanak egiteko lehiaketa deia egin du Iturengo Udalak. Lanaren aurrekontua 6.516.723 pezetakoa da (BEZ barne). Irailaren 27ko eguerdira arte izanen da aukera proposamenak aurkezteko Iturengo Herriko Etxeko idazkaritzan. Proposamenak jendaurrean zabalduko dira irailaren 27an, arratsaldeko 2,30etan.

Proiektu teknikoa eta xehetasun administratiboak interesatuen esku daude Iturengo Udalean.

### Doneztebe nagusitu zen laxoa txapelketaren errebantxan

Irailaren 12an Doneztebeko La Union Kasinoaren eguna ospatu zen. Eguneko ekitaldirik aipagarriena Bear-Zana pilotaplazan jokatutako laxoa partida izan zen. Baztan-Errekako laxoa txapelkerako finalaren errepikapena zegoen jokoan, Doneztebe Arraiozen kontra.

Doneztebarrek errebantxa gogoa zuten, final hartan 9-8 nagusitu baitziren baztandarrak. Oraingoan, ordea, Doneztebeko talde nagusiak bere plaza ederki ezagutzen duela erakutsi zuen eta 9-4 irabazi zuen. Bi taldeetan ohiko laukoteek jokatu zuten. Doneztebeen Mariezkurrena, Iribarren, Ganboa eta Apezetxea eta Arraiozen Saldias, Mortalena, Gamio eta Karrikaburu.

Bana berdindu ondotik, 7-2 aitzindu ziren doneztebarrak eta azken emaitza, 9-4.

Bertzalde, Oizko bestetan ere jokatu zen laxoa partida, herriko bi talderen artean. Bittor Zelaieta, Jose Joaquin Ziganda, Alberto San Migel eta Juan Mari Mindegiak osatutako laukoteak 9-7 irabazi zion Sergio Fagoaga, Javier San Miguel, Jose Urroz eta Carlos Mindegiak osatutakoari.




AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE



BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Ameztia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Doneztebe



MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Angie
ENGLISH ACADEMY
© 948 45 01 02
Elizagibela, 7 Behea • DONEZTEBE
Ingelesa ikasteko modurik errax eta atseginena
Irakasle amerikarra, multimedia-ordenagailuak, bideoteka, etabar.
98-99 ikasturterako matrikula zabalik

## MALERREKA

# Urrozko bestak, irailaren 24tik 29ra

### Igandean Mindegia aita-semeak eta Senosiain-Arrospideren arteko lehia

**Ortzirala, irailak 24**
**8etan** altxaferoak eta ezkilak bestei hasiera emanez. **8,30etan** Zopak Herriko Ostatuan. **12etatik aitzinera** dantzaldia URGABE taldearekin.
**Larunbata, irailak 25**
**12etan** pilota txapelketaren finalak. **6etan** antzerkia, KOLLINS KLOWN taldearen eskutik. Antzeslana: «Bikingoak». **8etatik 10etara eta 12etatik aitzinera** dantzaldia ALMEN taldearekin.
**Igandea, irailak 26**
**1etan** aizkora apostua: Mindegia aita-semeak, Senosiain-Arrospideren aurka. Lana: 12 enbor kana erdikoak. **Goizez eta arratsaldez** Haur Parkea. MotorPista, puzgarri haundia eta ludoteka. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MIKEL SALABERRI akordiolariarekin.
**Astelehena, irailak 27**
**12etan** mus txapelketaren hasiera. **1etan** pilota partiduak, herriko gazteen artean. **5etan** haur jokoak eta txokolatada. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariarekin.
**Asteartea, irailak 28**
**12etan** mus txapelketaren bukaera. Ondoren herri bazkaria, Xabier Amuritza eta Igor Elorza bertsolariekin eta Jon Bergaretxe abeslariarekin. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin. **Gauean** zingar jatea herriko plazan.
**Asteazkena, irailak 29**
**San Migel Eguna**
**11etatik aitzinera** bertako artisauek lanen erakusketa eginen dute. **12etan** Meza Nagusia, herriko zaindariaren ohorean. **1etan** hamaiketakoa Herriko Ostatuan. Ondoren aizkora apostua: Etxeberria Belarraren aurka. Lana: 8 enbor kana erdikoak. **5etan** Gorritiren animalien erakusketa. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia JOXE ANGEL akordeolariarekin.





1973ko mus txapelketa goitian. Aurten ere ohiturari eutsiko zaio. Beheitiko argazkian, berriz, 1974ko otordu umoretsua. Aurten ere izanen da hameketako, zopa jate eta zingar jaterik Urrotzen.

# Herrien arteko anaitasun besta ospatu du Arkupeak elkarteak Bertizen

### Natur parkea jubilatuei ezagutaraztea zen helburu nagusia

TTIPI-TTAPA

Inguruko herrietan bizi arren, jubilatu aunitzek Bertizko Natur Parkea ezagutzen ez dutenez, irailaren 22an Bertizen ospatu da herrien arteko anaitasun besta. Arkupeak elkartean antolatutako besta hau Aizkolegi bisitatuz hasi zen. Batzuk autobusean igan baziren ere, bertze aunitz, ttipi-ttapa oinez egin zituzten hameka kilometroak. Bertizko Jauregian Nafarroako Gobernuko ordezkarien harrera jaso zuten eta Estitxu Arozena eta Bittor Elizagoien bertsolarien saioa aditu ahal izan zuten. Bisitaldia akitu ondotik, Almandozko Beola hotelera joan ziren, bertan bazkaltzera. Bazkari ederraren ondotik, bazkalondo lasaiean solastu edo, animatuenak, dantzan aritzeko modua izan zuten.






Berako Larrakaitz txaranga gazteak alaituko ditu aurten ere herriko bazterrak San Migel bestetan.

Argazkiak: Oskar Txoperena

## Igandea 26

**12etan** pilota partiduak: Gorka Irazoki eta Gorka Retegi, Iban Zubieta eta Juan Mari Altzugurenen kontra. Aitor Cerezo eta Asier Irurieta, Josu Baleztena eta Iñaki Eskuderoren kontra. **5etan** Artzain Zakur Lehiaketa Mekaundiko zelaian.

## Asteartea 28

### Bezpera

**8etan** txupinazoa eta ezkil jotzea LARRAKAITZ txarangak eta txanpainak lagundurik. Ondotik, kankailu eta buruhaundiak ibiliko dira karrikaz karrika. **12etan** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

## Asteazkena 29

### San Migel Eguna

**10,30etan** Karrikaz karrika buelta herriko txistularieta dantzariekin. **11etan** Meza Nagusia herriko Abesbatzak kantatua. **12etan** Soka Dantza. **6etan** Igantziko dantzarien emanaldia. **Arratseko 9etatik 10etara eta 12etatik aintzinera** dantzaldia EGAN taldearekin.

## Ortzeguna 20

**9etan** gosaria Ziobi mendian. **9,30etan** Plater Tiraketa. **12etatik aintzinera** Ajoarriero txapelketa (sariak eguerdiko 1,30etan banatuko dira) **4,30etan** pilota partidua: Agesta eta Errandonea, Irigoien eta Mitxelenaren kontra. **6etan** buruhaundi eta kankailuak, gaiteroekin batera, karrikaz karrika ibiliko dira. **8etatik**

BI-ENA oilotegia
Arraultze freskuak
✆ 948 637 379
IGANTZI
✆ 948 630 047
✆ 948 630 180
BERA

CONSTRUCCIONES MECANICAS
CMB BERRIZTUN s.l.
Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 948627572 • Faxa: 948637313

SAN JUAN XAR KOOPERATIBA
Pentsu, ongarri eta erreminta salmenta
Tfnoa: 948 637 730 • IGANTZI

JATETXEA LA VILLA
Besta zoriontsuak opa dizkizuegu
Tfnoa: 948 63 72 90 • IGANTZI

IGANTZI
OSTATUA • JATETXEA • HOSTALA
IGANTZI ostatu-jatetxe-hostalak festa zoriontsu batzuk opa dizkizue
Karrika Nagusia • Telefonoa: 948 63 75 02



Mahai baten inguruan bildu, ederki jan eta edan eta lagun artean kantu kantari aritu: egitarauan ez da izugarrizko ekitaldirik behar bestak ederki pasatzeko.

**10etara eta 12etatik aitzinera** dantzaldia ARKAITZ taldearekin. Tartean, MUXIKOAK plazan.

## Ortzirala 1
### Ezkonduen Eguna

**10,30etan** karrika buelta herriko txistulariekin. **12etan** betizuak. **2etan** herri bazkaria Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin. Ondotik LARRAKAITZ txaranga karrikaz karrika ibiliko da. **12etatik aintzinera** dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

## Larunbata 2

**12etan** betizuak. **6etan** herri kirolak: • Sokatira froga (Igantzi-Lesaka). • Aizkora apustua (Cañamares-Carro-neskak). **8etan** bertso saioa: Jesus Mª Irazu, Mañukorta, Anjel Mª Peñagarikano eta Estitxu Arozena. Ondotik TAPUNTO txaranga aterako da karrikaz karrika. **12etatik aintzinera** dantzaldia EZTANDA taldearekin.

## Igandea 3
### Haurraren Eguna

Egun guzian haurrentzat jokoak eta gaztelu haizatuak izanen dira. **12etan** betizuak LARRAKAITZ txarangak animaturik, **5etan** berendua. **5,30etan** haurren arteko pilota partiduak (finalak). **8,30etan** buruhaundi eta kankailuak karrikaz karrika ibiliko dira. **8etatik 10etara eta 12etatik aintzinera** dantzaldia IZOTZ taldearekin.

TXOPERENA
GRUA ZERBITZUA
24 Ordu
TAILERRAK
NEKAZARITZARAKO MAKINAK SALMENTA ETA KONPONKETA
TRAKTOREAK
☎ 948 /63 79 95 ✆ 6'89 58 31 80 IGANTZI (Nafarroa)

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK ARTEKARITZA
Klase guzietako aseguruak herrian bertan!
Oskar Txoperena • Baratzondo 1 • IGANTZI
Tel.Faxa: 948 637236 • Mug.: 610 507579

ttipi-ttapa
internet

BI-BIDE
ostatu
janaridenda
BESTA ALAITSUAK OPA DIZKIZUEGU
Tfnoa: 948 63 72 78
IGANTZI

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.
Igantziko Bentak
✆ 948 63 74 11
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Garraio zintak eta mahaiak.
• Mantenu rodilloak.

Besta ederrak pasa!
TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA
Tel. 63 74 60
31770 Lesaka (NAVARRA)

JOSE AGERRE
PINTURA LANAK
• Fatxadak garbitu eta pintatu
• Kanpo eta barneko pinturak
• Papera lanak
• Barnizatzeak
• Gotelé
• Moketa eta zintasol
✆ 610 22 15 28 • 948 637957 • IGANTZIKO BENTAK

BORTZIRI
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
ESKEINTZA
Telefono mugikorrak dohainik irailaren 30a bitarte
Iturlandeta, 1 • ✆ 631091 • BERA

Igantziko Sanmigelak ttipi-ttapa telebistan

bortz IRUDI
Diseinu eta publizitate tailerra
Taller de diseño y publicidad
MOTA GUZTIETAKO INPRIMAKIAK
BISITA TXARTELAK FOTOKOPIAK
ENKONTZA GONBIDAPENAK ENKUADERNAZIOAK
ERREKORDATORIOAK PLASTIFIKAZIOAK
pasa alai eta besta in Sanmigelak urtean behin!
eta orain KAMISETAK zuk nahi duzunarkin inprimatuak
BERAN Eztegara 26an / Tel: 948 63 15 21

IRUGLAS, S.L.
GRABADOS
MARMOLAK ETA GRANITOAK




• Hileta artea
• Era guzietako letrak eta marrazkiak grabatzen dira
• Sukalde eta bainurako entzimerak
• Ispiluak, kristalak eta zeramika grabatuak



Fraineko bidea • 948 637 412 • IGANTZI




*Igantziko bestetan, herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu*

**Besta zoriontsuak!**

CAN NAFARROAKO AURREZKI KUTXA



**Igantziko Udalak besta onak opa dizkizue**
**Igantziar eta bisitari guziei**

## ☞ MALERREKA

# Mendaur Ehiza elkarteko besta eguna izan zen abuztuaren 29an

### Aurten Iturenen bezala, heldu den urtean Elgorriagan eginen da

IBAN ISASI

Ituren, Zubieta eta Elgorriagako ehiztariak urriaroa bertan dela eta, prestatzen hasi dira. Abuztuaren 29an ospatu zen Mendaur Ehiza elkarteko kideen artean antolatutako besta. Goizean gosari ederra egin zuten Ameztiako etxolan. 11,30ak aldera, hasi zen giroa berotzen, ehiza ibilaldi eta plater tiraketarekin. Bi orduak aldera, akitu zen lehiaketa. Nafarroako Ehiza Federazioko Eduardo izan zen epailea aurten. Hauek izan ziren irabazleak: lehendabizikoa, Isidro Bazterrika ittundarra, bigarrena Gregorio Sein iturendarra, hirugarrena Periko Altxu iturendarra, laugarrena Oskar Altxu, bosgarrena Hilario Mutuberria zubietarra, seigarrena Xabier Bendoiro zubietarra, zazpigarrena Peio Mikeo aurtiztarra, zortzigarrena Jaime Altxu ittundarra eta bederatzigarrena, Imanol Bazterrika ittundarra.

Bazkari eder batekin akitu zen besta, Iturengo Txoko ostatuan.

Heldu den urtean Elgorriagan eginen da ehiztarien besta.



**Mendaur Ehiza elkarteak antolatutako ehiza ibilaldi eta plater tiraketan parte hartu zuten ehiztariak.** Argazkia: Isidro Bazterrikak utzia


## LANGARRAren eskutik datozkizun ikastaroak

| IKASTAROA | IRAKASLEA | IRAUPENA | EGUNA | PREZIOA | TALDEA |
|---|---|---|---|---|---|
| YOGA  | Soaham Eskolako irakaslea | urria-ekaina | ortzegunetan 19:00etatik 21:00etara | 7.000 pta hilero | 10-12 lagun |
| ZERAMIKA  | Virginia Bosch | urria-ekaina | asteazkenetan 17:00etatik 19:00etara | 3.000 pta hilero | 12 lagun |
| TXALAPARTA  | Arantxa Ansa | urria-ekaina | asteartetan 17:00etatik aitzin (taldeen arabera) | 3.500 pta hilero | 4 lagun taldeka |
| BERTSOLARITZA  | Estitxu Arozena | urria-ekaina | | taldearen arabera | 10-12 lagun |

Izen emateko epea irailaren 30ean akituko da. ☎ 948 451 746 edo 670 406651

## ☞ GOIZUETA

# Berrogeita bi milioi pezeta erabiliko dira Burugorriko pista moldatzeko

### Erdia aurten eginen da eta gainerakoa hurrengo urtean

ESTEBAN AROZENA

Basartea enpresak egin eta joan den ostiralean udalak onartu zuen memoria teknikoak dioenez, 42 milioi pezetako aurrekontua duten lanak burutuko dira Burugorriko pistan hurrengo urteko azaroaren 30a baino lehen. Dena den, dirutza honenerdia aurtengo abenduaren 15erako erabiliko da, ordurako bukatuak egonen baitira lehenengo zortzi kilometroak.

Mendietatik jasotzen den diruaren puska haundi bat, %20a gutxienez, mendian bertan inbertitzen du Udalak. Herriko paraje aberats edo emankorrenen bidea Burugorriko hau denez, egoera onean eduki nahi dute. Azken hogei urte hauetako kamioien trafiko haundiak asko hondatu omen du gainera. Beraz, Udalak ez du zalantzarik izan mendiaren etekinak non inbertitu erabakitzerakoan.

Gaur egun proiektua den lan hau bukatzen denean, Goizuetako mendirik aberatsenak lotuko dituen zirkuitoa osatuta geldituko omen da, hau da, Hernaniko errepidetik hasi eta Burugorri, Udi, Frantzesen gurutzea, Unalbide, Zumarreneko harrobia eta Olatxo artekoa, alegia.



**Azken aste hauetan herriko plazan kukusuak izatearen errua zakurrena dela uste du udalak.**

Artxibokoa

#### Udalaren bandoa zakurrak dituztenentzat

Zakurrak herrian librea ibiltzea debekatuz bandoa kaleratu du Udalak lehengo astean, gainera beraien eginbeharrak kalean eginen balituzte, jabeek bildu beharko lituzkete. Ez da esan beharrik noski, lotuta ibiltzeaz gain garbitasun eta osasun baldintza egokietan eduki behar direla zakurrak ( kukusoen eta parasitoen aurkako beharrezkoak diren tratamenduak...).

## ☞ ARESO

# Mendialdea eta Nietoenea etxeetara eramanen da argia

### Industrialdean ura bideratzeko kanala eginen da

JUANA Mª SAIZAR

Udalak azken batzarrean erabaki duenez, argiztapen berria sartuko dute laster Mendialdea eta Nietoenea etxetara.

Bestalde, Belakuko pistan ormigoia botako da eta industrialdean kanala egingo da, ura bideratu eta errekara eramanteko.

#### Ehiza postuen subasta

Irailaren 25ean ehiza postuak subastatuko dituzte, arratsaldeko 7etan. Lehen saioa joan den larunbatean egin zuten.

#### Gripearen kontrako txertoa

Gripearen kontrako txertoa irailaren 24an eta urriaren 22an, 12,30etatik 1,30etara emango da Aresoko kontsultan. Ordua hartzeko deitu telefono honetara: 948 510800.

#### Ingeles ikastaroak

Ingelesa ikasteko aukera bada herrian bertan. Irakaslea astean bi egunez etorriko da, maila guztiak ematera. Apuntatzeko epea, irailaren 30a, Sastinean.




**Maitane Gereño bikain igerian**

Maitane Gereño herriko igerilariak Nafarroako Kirol Jokoetan parte hartu zuen. Finalean, zilarrezko domina lortu zuen 25 metro bizkarka eta brontzezkoa 25 metro libretan.

## LEITZA

# Herriko bi gazte hil dira auto istripuetan

## Nartxi Saralegi aizkolari famatua da horietako bat

JOSEBA AZPIROZ

Joan den astean bi egunen buruan herriko bi gazte hil ziren trafiko istripuetan.

Astelehenean, Nartxi Saralegi Arribillaga, 39 urteko aizkolari famatua hil zen Acedon izandako ezbeharrean.

Asteazkenean, berriz, Jose Migel Otxotorena Sagastibeltza, 17 urteko gaztea hil zen Gorritin izandako beste ezbehar batean.

### Mendizale helduen ibilaldia igandean

Irailaren 26an, igandea, goizeko 9etatik aurrera, Nafarroa Kirol Elkarteak antolatutako IX. Mendizale Helduen Ibilaldia eginen da. Ibilaldi hau urtero egiten den nafar mendizale helduen arteko topaketa bakarra denez, egun zoragarria izan ohi da, mendiz mendi urteak eta urteak daramatzaten mendizaleek beraien arteko harremanak suspertu eta sakontzeko aukera ezin hobea izaten dutelako. Ibilbidea Baztarla (934 m), Aizan (1.056 m) eta Eguzkiko Muñoa (1.082 m) mendien barna burutuko da, eta bukaera, irteera lekuan izanen da, hau da, eskolako eremuan. Probak lau bat orduko iraupena izanen du eta berrehun bat mendizale helduen presentzia espero dute antolatzaileek.

Bestalde, goizeko 10etan hasita, kadete mailako txirrindulari proba eginen da. Probak bi zati izanen ditu. Lehendabizikoan, Leitza-Ozparrun-Uitziko errepidea, Leitza, Usategietako gaina, Leitza eginen dute. Bigarren zatia, erlojuaren kontra: Leitza-Ozparrun-Uitziko errepidea-Leitza-Helmuga. Honen ondorioz, 11etatik 12ak arte ezin izanen da ibilgailuz ibili zeharbidean –Sagastimarretik gora–.



Nartxi Saralegi trafiko istripuan hil da.
Diario Navarra

## flash

**Ardi Beltza aldizkariaren aurkezpena**
Irailaren 24ean, ostirala, arratsaldeko 7'30etan, Aurreran, Pepe Reiek Ardi Beltza aldizkariarenproiektuaren aurkezpena eginen du. Aldizkari hau Egin egunkariko ikerketa taldeak argitaratu nahi du. Horretarako harpidedun kopuru bat ziurtatu nahi dute. Bestalde, *«Garzon. La otra cara»* bere azken liburuaz ere mintzatuko da.

**Udal kontribuzioak**
Kontribuzioaren ordain-agiriak igorri ditu Udalak. Aurten 29,2 milioi bilduko ditu hiri-kontribuzioarengatik (eraikuntzak), 2 milioi landa-kontribuzioarengatik (lurrak) eta 224.000 pta. komunalen probetxamenduarengatik kobratzen den kanonaren bidez. Ordaintzeko epea urriaren 31 arte da.

**Nortasun Agiria**
Nortasun Agiri a berritzeko bulegokoak ez dira azaroaren 4a arte etorriko.



## ☞ BAZTAN

# Telebista seinalearen banaketak arazoak sortu ditu Txokoton

Proiektu hori ahalik eta hobekien akitzea eskatu du Udalak

TTIPI-TTAPA

Txokoton telebista seinalea banatzeko proiektua nahiko emaitza onarekin martxan jarri bada ere, zenbait bizilagunek arrenkura azaldu dute. Alde batetik, proiektuan azaltzen ziren lotura zenbait ez dira egin eta bertzeetan, seinalea nahiko apal eta zikin ailegatzen da. Balleko Udalak azpiegitura egindako gastua kontuan hartuz, Nafarroako Gobernuaren betebeharra delakoan, eta, batez ere, erabiltzaileek zerbitzua modu egokian jasotzeko eskubide osoa dutela pentsatuz, Balleko Udalak proiektu hori akitzea eta ahalik eta hobekien egitea eskatu dio Nafarroako Gobernuari.



**Baztan futbol taldeko onenei sariak**
Giltxaurdi futbol zelaian denboraldiko lehen partidua hasi baino lehen banatu ziren 1998-99 denboraldiko Baztango jokalari onenei emandako sariak. Jokalaririk onena Alberto Barberena izan zen, erregularrena Xabier Iparragirre eta goleatzailerik onena Dani Etxeberria. 1997-98 denboraldiko goleatzaile onenari, Mikel Garbalenari, ere saria eman zioten. Argazkia:Ondikol

### Amaiurko ikasleek aterperik gabe esperatu behar dute autobusa

Amaiurko ikasleek eskolara gateko autobusa hartzeko duten arazoa aztertu zen azken udal batzarrean. Neska-mutikoek bidegurutzean esperatu behar izaten dute, inolako aterperik gabe. Ikasturte hasieran Amaiurko alkatea Lekarozko Institutuko zuzendariarekin, Eskola Kontseiluko kide batekin eta Balleko Udaleko Kultura, Hezkuntza eta Euskera zinegotziarekin bildu zen aferaz solasteko. Nafarroako Gobernuak proposatzen dituen bideen arabera arazoa moldatzeko neurriak hartuko direla erabaki zen. Afera honela moldatuko ez balitz, Balleko Udala dirulaguntza bat emateko prest egonen litzateke. Amaiurko ikasleen onerako ere komeni da arazoa moldatzea.

### Margoketa ikastaroa arrakastatsua suertatu da aurten ere

Jose Mari Apezetxea eta Tomas Sobrinok emandako margoketa ikastaroa arrakastatsua izan da bertze urte batez. Orain dela zazpi urte hasi ziren uda partean kanpoan margotzen eta urtetik urtera gehiago dira ikastaroan parte hartzera animatzen direnak. Hasieran kanpotarrak ziren gehienak, baina gaur egun baztandarrak dira nagusi.

## ▼ flash

**Elizondoko espaloiak** moldatzeko lanak Amaiurko Manuel Mitxelenak eginen ditu, 11.036.237 pezetaren truke. Lehendabiziko lehiaketa hutsean gelditu ondotik zuzenean eman zaizkio lanak Mitxelenari.

**Erreka ondoan belagia pixarekin bustitzearekin isuna**
Guardia Zibileko Sepronaerakundeak denuntzia ezarri du Baztango nekazari baten aurka. Isunaren arrazoia, azienda pixarekin erreka batetik berrogeita hamar metrora baino hurbilago dagoen belagia bustitzea da. Balleko Udalak jaso du denuntzia eta arazo larririk ez dela izan adierazi du.

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, ✆ 948 580939
ELIZONDO
UDAZKENEKO ARROPAK
Galtzak, atorrak, trajeak, konjuntoak, kamisetak, blusak, oihalak...
ESKULANGINTZAKO MATERIALAK

1999-2000 ikasturte hasiera
SPARK
Ingles Akademian
«IKASI INGELESA ETORKIZUNERA BEGIRA»
• EEBBetako irakaslea, tituluarekin • talde ttikiak •
• maila guziak, hutsetik *advanced* bitarte •
• haur eta helduak • itzulpenak •
MATRIKULA EPEA: URRIAREN 2A ARTE
✆ 948 580 175 (Elizondo)

La Asturiana
ostatu• jatetxea
Tfnoa: 948 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

## BAZTAN

# Anizko bestak urriaren 2tik 5era

Astelehenean Baztango laugarren golf txapelketa jokatuko da

**Larunbata, urriak 2**
**Bezpera Egune**
**8etan** altxaferoak herriko bestei hasiera emateko. **12,30etatik 5,30etara** gaupasa GORRAMENDI 10 taldearekin. **Goizaldean** zinger-jatea.

**Igandea, urriak 3**
**Arrosarioko Amabirjinaren Egune**
**Goizean** Doneztebeko xistulariak karrikaz karrika ibiliko dira. **12etan** Meza Nagusie. Ondotik hameketakoa, **5,30etan** pilota partiduak gazteen artean. Ondotik IRUÑA dantza taldearen emanaldia. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin.

**Astelehena, urriak 4**
**Haurren Egune**
**10etan** Baztango IV. golf txapelketa. **12etan** mus txapelketa azkarra. **2etan** paella jatea herrikoendako. **Arratsaldean** haurrendako jokuak. **Arratsean** afaria JOXE ANGEL akordeolariarekin. Aurten Giraldilla omenduko da.

**Asteartea, urriak 5**
**Baserritar eta Nekazarien Egune**
**Goizean** esku pilota partidak herrikoen artean. **2etan** zikiro jatea JOXE ANGEL akordeolariarekin. Bazkal ondoan, pilota txapelketa eta mus txapeketaren finala. **Arratsean**, bestei akabera emanez afaria eta GAIZUA NI.



**Duela urte mordoxka ateratako argazki hau, pilotalekuko herri bazkariaren ondotik ateria da. Batzuk bazkalondoa mahaiaren inguruan pasatzen dute eta bertze batzuk, berriz, pilotan.**





KULTURKARI

**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

✆ 948 63 11 88

## SARA

# Eguraldi ederra lagun, herriko bestak umore ederrean gan dira aurten

AEK Eguna Saran ospatuko da aurten urriaren 24an

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Aurten herriko bestetan astelehenarekin bakarrik egin zuen euria, joan den urtean baino aunitz gutiago!

Larunbat arratsaldean hasi ziren ekitaldiak; errebotea haurrez bete zen besta komiteak eskainitako jokoetan urririk parte hartzeko. Nahiz eta joko hauek azkeneko momentuan segurtatuak izan, haur eta buraso ugari etorri zen. Gaueko 9etatik goiti, plaza hasi zen betetzen eta goizeko 2ak arte 3.200 pertsona sartu ziren kontzertua ikusteko. Denetara, bederen 4.000 pertsona hurbildu ziren gau hortan Haurtzarrak taldea eta herriko Panpi Gerarden Tabasco taldearen doinuekin dantzatzeko.

Igande arratsaldean, ahate jokoa aintzin gazteek desfilea egin zuten. Beti bezala, tresna berri batzuk agertu ziren; hala nola Afrikako zulu tribu bat; Halloween Ameriketako bestaf amatuaren parodia... bakoitzak bere tresna moldatua izanik temaren arabera.




Iazko Strumph taldearen tresna. Artxibokoa

Biharamonean goiz goizetik euri ainitz hasi zen botatzen. Errebote partida ez zen egin, aldiz gainerako ekitaldiak polikiroldegian ikusteko parada ukan zen. Gaueko aterialdia baliatuz Kukumiku taldeak plazan eskaini zuen bere dantzaldia.

Azkeneko bi egunak normaltasun osoz iragan ziren. Besta Komiteak antolatutako zozketari dagokionez, sari gehienak saratarren artean banatu ziren: lehen saria, Balearetako aste beteko bidaia Larzabalea etxeko Paskal Hiriartek irabazi zuen. Bigarren saria Isabelle Lastonauk. Irabazle guzien zerrenda ohiko tokietan agertuko da.

### Euskara ikastaroa AEKren eskutik

Udako atsedenaldiaren ondotik, sartze garaia etorri da elkarte ainitzentzat. Hala nola, aurten ere, euskara ikasi edo hobetu nahi duten saratar guziek AEKk proposatu klaseak segitzen ahalko dituzte herrian berean. Joan den urteko ikasleek baita berriek ere, izena eman dezakete telefonoz 05 59 47 53 46 zenbakia eginez.

Bertzalde, informazio bilkura bat iraganen da buruilaren 29an, asteazkenarekin, arratseko 8etan Gazteen Etxean. Klaseak urriaren 4eko astean hasiko dira.

### AEK Eguna Saran ospatuko da aurten urriaren 24an

Erran behar da aurtengo ikasturtea berezia dela Sarako Gau Eskolarentzat, usaiazko kurtsoetaz gain, AEK Eguna 99, Euskal Herri guziko Gau Eskolen aurtengo besta gure herrian ospatuko baita. Hitzordua urriaren 24an dugu, eta Gau Eskolako arduradunak oraindanik lanean ari baldin badira ere egun haundi horren prestatzeko, jakinarazten dute bestaren egunean laguntza ekarri nahi duten guziak ongi etorriak izanen direla. Borondate onekoek 05 59 47 53 46 zenbakirat deitzea bertzerik ez dute arduradunekin harremanetan sartzeko. AEK eguneko egitaraua ondoko asteetan emanen dautzuegu. Erne egon beraz!

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
Parrilan egindako haragi eta arrainak



Baztanen...
ESTHER
LOREDENDA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...
24 orduko zerbitzua
Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54
Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • ELIZONDO

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
64310 SARA • Tél. 05 59 54 25 19

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
✆ 948 599 131 - URDAZUBI

## SENPERE

# Ibarrungo bestak buruil hondarrean ditugu aurten ere

Bisitari gehiago ibili dira aurten turismo bulegoetan

FRANCK DOLOSOR

Urtero bezala, buruilaren hondarrean ospatuko dira Ibarrungo bestak. Buruilaren 24an, ortzirala, zerri ttiki jatea inharrean eginen da. Larunbat gauean, Skunk eta Xitoak taldeek joko dute. Igandean, arratsaldeko 4etan, pilota partida jokatuko dute Saint Paul eta Martiarenak, Aranburu eta Itoizen kontra. Ondotik, 5etan, Arrantzaleak taldearen musika emanaldia egitekoa da.

Azkenik, 27an, astelehenaz, Kriolinak musikari kantariak ariko dira. Pilotan, Dermit-Dermit bikoteak, Etxegoin eta Ezkurraren kontra jokatuko du. Besta on denei eta aupa Ibarrungo gazteria!

### Turista gehiago ibili da uda huntan

Senpereko Turisma Bulegoak bilan baikorra egiten du udaz. Jende gehiago ibili da eta herriko bi turismo bulegoetan –herrian eta aintziran– zortzi mila familien bisitak izan dituzte argibideak jakiteko. Orotarat, zortzi presunek lan egiten dute turismo bulegoan udan, Beren erranetan ikusle gehiago ibili da antolatu dituzten pilota partida eta kontzertuetan. Sasoina uztail hastapenetik hasi da aurten, gan den urtean ez bezala, eta frantziarrak, ingelesak eta holandesak dira gure herria gehien bisitatzen dutenak.




**Mallorcarat bidaia Gure Irratiaren eskutik**
Amelie eta Olivier Zozaia senpertarrek irabazi dute Gure Irratiak zozketatu duen Mallorcako bidaia. Zorionak!

### Uda ondotik lanean hasi dira herriko elkarteak

Beren lana abiatu dute buruil huntan elkarte gehienek. Parte hartu eta izenak emateko zenbaki hauek bildu ditugu:

- Zikirolatz (euskal dantzak haur eta helduentzat): 05 59541890.
- Ttirittak (gimnastika): 0559541882
- Gitarra ikastaroak: 0559292638
- Sport Loisirs (futbola, tenisa, pilota, gimnastika): 0559541812. Izenak buruilaren 29a aintzin eman behar dira.
- AEK (euskara ikasteko): 0559257609.

## flash

**Ziburuko Saupiquet** lantegiko langile kanporatuek Senpereko «Pécheries basques» hortan lana ukan dute eta Yplon lantegiko senpertar saratar langile kanporatuek non dute lan ordaina?

**Herriko liburutegiak** hiru aldiz idekitzen ditu ateak. Astelehenetan 4,30 eta 6ak artean, eta asteazken eta larunbatetan, goizeko 10,30ak eta 12ak artean. Izenak emateko 45 libera ordaindu behar da.

**Eskola sartzeak** Uda iragan ondotik eskola sartzeak izan dira herrian. Haur, gazte eta erakasleek betiko bidea hartu dute Senperek dituen sei ikastetxeetan. Arretxea lizeoan 190 neska-mutil hasi dira, 18 erakaslerekin. Zaldubi ikastolan 50 haur hasi dira, hiru erakasle terdirekin. Herriko eskola publikoan 197 haur hasi dira (24 lehen aldiz) hameka irakaslerekin. Horietatik 116 klase elebidunetan ari dira. Amotzeko eskolan 35 haur dituzte (2 lehen aldiz), bi erakaslerekin eta dena frantsesez ematen dute, nahiz eta euskaraz hasteko eskariak izan. Saint Christopheko laborantza ikastegian, azkenik, 210 ikasle hasi dira, 20 erakaslerekin. Saint Joseph eskola pribatuko daturik ez ditugu eskuratu ahal izan.

Kutxa Kutxa Kutxa
Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa
Kutxa
Kidetza berri bat!
7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

RESTAURANT MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
© 948 631209 • BERA

## URDAZUBI

# Xareta Eguna ospatuko da urriaren lehen aste hondarrean

Oskorrik kontzertua eskainiko du larunbatean Urdazubin


Oskorri taldeak emanaldia eskainiko du larunbat arratsean. Artxibokoa

TTIPI-TTAPA

Xareta Egunaren kari, zenbait ekitaldi antolatu dira Urdazubin urriaren lehen aste hondarrerakoz. Honela, urriaren 2an, larunbata, goizeko 11etan Xareta Saria pilota lehiaketaren finalerdiak jokatuko dira ezkerparetan. Gaueko 10etan berriz, Oskorri taldeak kontzertua eskainiko du. Sartzea 20 libera edo 500 pezeta gostako da.

Igandean, goizeko 9etan Xaretako Itzulia aterako da Urdazubiko plazatik. Ibilbideak oinez, zaldiz nahiz bizikletaz egiteko modua izanen da. Eguerdiko 12etan, ezkerparetan Xareta Saria pilota lehiaketaren finalak jokatzen diren bitartean, plazan kontzertua eta zintzurbustitzea izanen da. Arratsaldeko 2etan, Urdazubiko klaustropean zikiro-jatea eginen da, Trekuk alaiturik. Txartelak salgai daude 100 libera edo 2.500 pezetaren truke. Arratsaldeko 5etan dantzaldia hasiko da Iñazki taldearen eskutik. Ekitaldi hauetaz gain, egun osoan Ezpeletako txaranga, txistulariak, gaiteroak, dantzak, kantuak, muxikoak, bertsulariak... izanen dira. Xehetasun gehiago Urdazubiko Indiano Baita ostatuan (948 599021 telefonoan).

## OSASUNA

# Gripearen aurkako txertaketa kanpaina zabaldu da eskualdean

Irailaren 20an hasi eta urriaren 25a arte izanen da aukera


Osasun etxe eta kontsultetan emanen dute gripearen txertoa.

TTIPI-TTAPA

Urriaren 20an hasi eta urriaren 25a arte zabalik egonen da eskualdeko osasun etxeetan gripearen aurkako txertoa hartzeko aukera. Txertoa bereziki honako pertsona hauei zuzenduta dago: 65 urtetik goiti dituzten adinekoak, irakasleak, diabetikoak, bihotzekoedo giltzurrinetako gaixotasunak dutenak...

Gripearen kontrako txertoari buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, Osasun Etxean edo Kontsultategian emanen dizute horren berri. Beraiek baloratuko dute zurekin batera txertatzearen garrantzia, eta txertatzea erabakiz gero, zein den egunik egokiena jakinaraziko dute.

## EZKONTZAK

**Luis Miguel Ilarregi Elizaintzin** eta **Nekane Ariztegi Juanena**, Oitz eta Lanzekoa, abuztuaren 14an.
**Ainhoa Fernandez Maritxalar** eta **Aaron Peter Klop**, Lesaka eta Michigan (EEBBtakoa), abuztuaren 28an.
**Jhonny Loiarte Narbarte** eta **Joanne Lee Fleming**, Goizueta eta Californiakoa, EEBBtan, abuztuaren 14an.
**Jaime Martinez Garcia** eta **Beatriz Prim Ustariz**, Iruritakoak, abuztuaren 28an.
**Alejo Martikorena Endara** eta **Elena Saharrea Maisterrena**, Berakoak, abuztuaren 28an.
**Corine Aubry** eta **Pierre Christian**, Sarakoak, irailaren 11n.

## JAIOTZAK

**Iñaki Trantxo Azkarate**, Iruñekoa, abuztuaren 10ean.
**Aimar Telletxea Galarregi**, Iruritakoa, abuztuaren 25ean.
**Garaxi Sagaseta Urrutia**, Iruritakoa, irailaren 1ean.
**Eider Quertier Amiano**, Elizondokoa, irailaren 1ean.
**Mikel Oiaregi Aleman**, Elizondokoa, irailaren 9an.
**Anne Oiaregi Aleman**, Elizondokoa, irailaren 9an.
**Kaiet Iriarte Goienetxe**, Arizkungoa, irailaren 7an.
**Jasone Mindegia Benito**, Eratsungoa, abuztuaren 4an.
**Julene Arburua Fagoaga**, Zugarramurdikoa, abuztuaren 9an.
**Oier Berasategi Elizondo**, Urrozkoa, irailaren 1ean.
**Ana Elixabete Mazizior Juanena**, Urrozkoa, abuztuaren 30ean.

## HERIOTZAK

**Narciso Saralegi Arribillaga**, Leitzakoa, irailaren 13an, 39 urte.
**Jose Miguel Otxotorena Sagastibeltza**, Leitzakoa, irailaren 15ean, 17 urte.
**Bautista Etxenike Fagoaga**, Zugarramurdikoa, irailaren 11n, 65 urte.


SOULE
Hileta artea
✆ 948 453 444
✆ 908 779 903
ARIZKUN

Josema
Aurrekontuak konpromezurik gabe
948 63 0 944
670 33 28 46
HARGINA
MOLDAKETAK
AZULEJOAK
IGELTSO
LANAK

ttipi-ttapa
7.100 harpidedun
24.000 irakurle

ARROPA DENDA
MERCERIA FANTXIKE
JAIME URRUTIA,24
TFNO.580312
ELIZONDO
Gazteendako
era guzietako
arropa
Lanerako arropa

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
*Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa*
Iturriotz Auzoa • ✆ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI


OLATZ
bitxidenda
Konpromezuzko
Solitarioak
diamentekin
San Pedro 3 • Tel. 943 64 56 78 • HONDARRIBIA

# Nafarroako aizkolariak nagusitu ziren Bertizko Bigarren Kopan

■ Senosiain, Nazabal eta Mikel Mindegia izan ziren ordezkari nafarrak
■ Bakarka eta hirunaka egindako probak irabazi zituzten

Nafarroaren izenean aritu ziren Antonio Senosiain, Floren nazabal eta Mikel Mindegiak irabazi zuten Bertizko Bigarren Kopa. Urrezko Iratzea eta 225.000 pezetaeraman zituzten. Aitzinean Angel Arrospide, Jose Mari Olasagasti eta Jose Migel Peñagarikano gipuzkoarrak izan zituzten.

Bakarkako lanean, Senosiain Peñagarikano baino dexente azkarragoa izan zen 54 ontzako zortzi enborrak mozten. Binaka, 54 ontzako sei enbor zutik eta 60 ontzako lau etzanda moztu behar izan zituzten. Enbor ttikietan Nazabal eta Mindegia azkarragoak izan baziren ere, haundietan Olasagasti eta Arrospide indartsuago aritu ziren. Azkenean zortzi segudu eskas gipuzkoarren alde. Hirunakako proban erabaki zen txapela eta hemen nafarrek minututik goitiko aldea atera zuten.



Nazabal, Senosiain eta Migel Mindegiak Nafaroan utzi zituzten txapelak.
Argazkia: Legarra

| Enborrak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **BAKARKA** | | | | | | | | | | |
| Senosiain (Nafarroa) | 1'21" | 3'04" | 4'54" | 6'45" | 9'18" | 11'05" | 13'14" | **15'40"** | | |
| Peñagarikano (Gipuzkoa) | 1'36" | 3'20" | 5'35" | 7'22" | 9'31" | 11'34" | 14'36" | **17'09"** | | |
| **BINAKA** | | | | | | | | | | |
| Mindegia-Nazabal (Nafarroa) | 1'00" | 3'04" | 5'11" | 6'58" | 8'30" | 10'13" | 11'33" | 13'57" | 16'02" | **17'30"** |
| Olasagasti-Arrospide (Gip.) | 1'04" | 3'09" | 5'04" | 7'00" | 8'22" | 9'55" | 11'07" | 13'32" | 15'44" | **17'22"** |
| **HIRUNAKA** | | | | | | | | | | |
| Nafarroa (Mindegia-Senosiain-Nazabal) | 0'46" | 1'47" | 2'43" | 3'39" | 4'52" | **6'32"** | | | | |
| Gipuzkoa (Olasagasti-Arrospide-Peña) | 0'54" | 1'47" | 3'55" | 4'49" | 5'43" | **7'36"** | | | | |

## Nafarroako bigarren mailako aizkolarien finala igandean Huarten

Igande honetan, irailak 26, burutuko da Huarten Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketaren finala. Irailaren 6an Bargotan burututako finalaurrean Jose Antonio Loiarte zubietarra izan zen onena: 54 ontzako bi enbor eta 60 ontzako bat mozten 7 minutu eta 7 segundu egin zituen. Finalerako sailkatu ziren Otsagiko Daniel Vicente (7'23"), Ziordiako Jose Ignacio Flores (8'29"), Doneztebeko Juan Telletxea (8'36") eta Etxarri-Aranazko Juanjo Erdozain (9'01"). Finaletik kanpo gelditu ziren Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberria, Jose Luis Telletxea eta Jon Telletxea.

# Arraioz txapeldun Nafarroako herriz herri txapelketan

■ Eratsunen jokatutako finalean bigarren konbinadan gailendu zen

Irailaren 11n, Eratsungo besten barrenean jokatu zen Nafarroako Herriz herri txapelketako finala.

Gizonezkoen arteko txapelketan Arraioz, Odieta, Berriozar eta Ultzamako taldeak aritu ziren lehendabiziko konbinadan (kozkor biltzea, zakulari lasterketa, aizkolaria, korrikalaria eta arpanlariak biltzen dituena. Bigarren konbinadan (txingak, 50 kiloko harrijasotzeaeta ingude altxatzea biltzen dituena) Arraioz, Odieta, Ultzama eta Etxauriko harana taldeak aritu ziren.

Lehendabiziko konbinadan Odieta izan zen azkarrena, 16'22" denborarekin. Bigarren postuan Berriozar (16'35"), hirugarrenean Ultzama (17'19") eta laugarrenean Arraioz (18'20") sailkatu ziren. Bigarren konbinadan Arraioz izan zen txapeldun 4 punturekin. Ondotik, Ultzama (3 puntu), Odieta (2 puntu) eta Etxauriko harana (puntu 1) izan ziren. Nesken artean, Etxauri nagusitu zitzaion Ultzamari.

## Auto istripuan hil zen Nartxi Saralegi aizkolaria

Irailaren 13an, auto istripu baten ondorioz hil zen Nartxi Saralegi, 39 urte zituela. Herri kirolari lotutako familian, sei anaiarreben artean bigarrena zen Nartxi. Altueran aizkoran aritzeaz gain, gaur egun Mikel Saralegi harrijasotzailearen ordezkaria eta laguntzailea zen. Emaztea eta bi seme utzi ditu.

# Eskualdeko igerilari gazteak bikain Nafarroako Kirol Jokoetan

■ Urrezko bortz domina, zilarrezko hiru eta brontzeko lau ekarri zituzten

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa eta Leitzaldeko igerilari gaztetxoen selekzioak emaitza bikainak eskuratu zituen abuztuaren 28an Iruñeko Gelbentzu igerilekuan burututako XII. Nafarroako Kirol Jokoetan.

Bakar-bakarrik dominak aipatuz, sorta ederra lortu zuten: Tximeleta erara, 25 metrotan, hirugarren izan zen Unai Rodriguez. Xabi Alzurik brontzezko bertze bi domina erdietsi zituen, 50 metrotan, librean eta tximeleta erara. Maitane Gereñok ere bi domina etxeratu zituen, horietako bat zilarrezkoa (25 metro bizkarka) eta bertzea brontzezkoa (25 metro libreak). Ane Alberrok bigarren egin zuen 50 metro bizkarka. Ander Rodriguez bigarren izan zen 50 metro librean eta txapelduna, berriz, 50 metro brazan, Baztan-Bidasoakoentzat lehendabiziko urrezko domina lortuz. Udane Cabezak urrezko bertze bi golkoratu zituen, 50 metro librean eta 100 metro estiloetan.

Gainerako urrezko bi dominak erreleboka eskuratu zituen Baztan-Bidasoako taldeak. Xabi Altzuri, Udane Cabeza, Ander Rodriguez eta Ane Alberrok osatu zuten errelebo taldea eta txapeldun izan ziren 4x50 metro estiloetan eta 4x50 metro librean.




Baztan-Bidasoako igeriketa selekzioak hamabi domina lortu zituen Nafarroako Kirol Jokoetan.

**SELEKZIOA**

| | |
|---|---|
| Gorka Prieto | Bera |
| Mikel Morcillo | Bera |
| Unai Rodriguez | Bera |
| Xabi Altzuri | Bera |
| Jokin Iantzi | Bera |
| Ander Rodriguez | Bera |
| Martin Fagoaga | Elizondo |
| Iker Martin | Elizondo |
| Gurutze Andueza | Bera |
| Maitane Gereño | Areso |
| Ane Alberro | Elizondo |
| Isabel Etxebeste | Lesaka |
| Eneritz Zabaleta | Leitza |
| Udane Cabeza | Leitza |

**Entrenatzaileak:** Aritz Perez (Bera) eta Eunate Lopez (Leitza)

**WATER-POLON ERE ONGI**

Bertzalde, irailaren 4an igerileku berean, Berako Gure Txokoako water-polo taldea lehiatu zen. Hamabi talderen artean bosgarrenak izan ziren beratarrak. Lehenbiziko partida aisa galdu bazuten ere, gainerako hiruak irabazi egin zituzten.

# Koteto Ezkurrak bosgarren txapela lortu du Bingo-Londres txapelketan

Azken aldian ez omen zen fin ibili eta aspaldiko partez ez zen faborito gisara ateri Koteto Ezkurra erremontelari doneztebarra Bingo-Londres txapelketaren finalera. Aitzinean, denboraldi ederra burutu duen Jon Eizagirre zarauztarra zuen.

Baina horrelako momentuetan agertzen dira txapeldun haundiak eta Doneztebekoak momentuko erremontelari haundia dela erakutsi zuen. Bakarkako bosgarren txapela irabazi zuen segidan, orain arte erremontean inork lortu ez zuen marka.

Hasierako tantuetan gipuzkoarra jarri zen aitzinetik, baina laster hasi zen Ezkurra agintzen. Ederki gurutzatu zituen bere pilotakadak eta 27-14 irabazten jarri zen. Kontuak kontu, bazirudien bosgarren txapela aisa jantziko zuela Kotetok, baina bi pasa egin zituen eta Eizagirrek sakearekin min egin zuen. Hiru tantura hurbildu zen (33-30), baina bi paretekoeder batekin, garaipena segurtatu zuen Kotetok. Txapela jantzi ondotik gustora ageri zen: *«Eizagirre indartsuena izan da uda honetan, baina partidu ederra egin dut. Erregetako Sarian ikusi zen bezala, nik ere galtzen ahal dut, noski. Halere, ez nengoen aunitzek erran duten bezain gaizki».*



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

**IGANTZI**

**Irailaren 28tik urriaren 3ra** Xehetasunak gehigarrian.

**ANIZ**

**Urriaren 2tik 5era.**

**URROTZ**

**Irailaren 24tik 29ra** Xehetasunak 18. orrialdean.

**IBARRUN**

**Irailaren 24tik 27ra** Senpereko berritan, 25. orrialdean.

## IKASTAROAK

**MALERREKA**

**Langarra** Euskara Taldeak Yoga, Zeramika, Txalaparta eta Bertsolaritza ikastaroak antolatu ditu hurrengo ikasturterako. Informazio gehiago Malerrekako orrialdeetan. Izena emateko epea irailaren 30ean akautuko da.

## IBILADIAK

**BERA**

**Aneto**ra bidaia antolatu du Agerra Mendi Taldeak irailaren 25erako. 3.404 metro ditu Anetok, eta kranpoiak eramatea gomendatu dute antolatzaileek. Informazio gehiago 948 630 362 telefonoan, Xabier.

## GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnoro. deitu behar da

**Irailaren 20tik 26ra** Bera, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

# AGENDA PRAKTIKOA

## TELEBISTAKO TXOKOA

# ttipi-ttapa telebista

| | ASTELEHENA | ASTEARTEA | ASTEAZKENA | ORTZEGUNA | ORTZIRAIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 11:00 | Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) Bidegurutzean | Berriak (errep.) |
| 13:00 | Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) Bidegurutzean | Berriak (errep.) |
| 17:00 | Herriz-herri (errep.) | Berriak (errep.) Jokoa Solas | Berriak (errep.) | Berriak (errep.) Bidegurutzean | Berriak (errep.) |
| 21:00 | Berriak | Berriak | Berriak | Berriak | Herriz-herri |
| 21:30 | Jokoa Solas | | Bidegurutzean | | Herriz-herri |



## Igantziko bestak

### TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Oporretatik bueltan Igantziko bestetan sartuko gara burubelarri, zuen etxeetara hango irudiak eta protagonistak eramateko gogoz. Eskualdeko azken bestak izan ohi dira Igantzikoak, eta hoiek pasatuta, TTIPI-TTAPA TELEBISTAren programazio berria ezagutu ahal izanen duzue. Ongi ibili!

## BASERRIA



### ZERRIKIA

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.000 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 151,5 pta/kiloa.
- **Zerramak:** 90 pta./kiloa, bizirik.



### BEHIKIA

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal

Extra . . . . . . . . . . . . . . .550
1.koa . . . . . . . . . . . . . .520
2.koa . . . . . . . . . . . . . .490

- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal

Extra . . . . . . . . . . . . . . .560
1.koa . . . . . . . . . . . . . .530
2.koa . . . . . . . . . . . . . .510

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 28.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: **EHNE-NAFARROA**

## Liburuak



«Hitz lauzko lanak I»

Aita Polikarpo Iraizozkoa

Nafarroako Gobernua

1897an Ultzaman, Iraizotz herrian jaio zen Aita Polikarpo, eta 1980an hil zen Lekarozen. Kaputxinoen Ordeneko Idazkari Nagusia izan zen 18 urtez Erroman, eta Euskaltzain osoa izendatu zuten bere euskaltzaletasunagatik. Prosan eta hitz neurtuetan arras emankorra da bere lana, eta horren seinale dira 1997an atera zuten "Hitz neurtuzko lanak" liburua, baita orain Nafarroako Gobernuak argitaratu duen hau ere. 1927 eta 1949 urteen artean idatzitako dokumentuetatik atera dituzte hemen irakurtzen ahal diren testuak. Lekarozen Aita Polikarpo ezagutu zuen Frantzisko Ondarra kaputxinoak bildu ditu haren homiliak (Beratik Zugarramurdira bitarteko herrietan bere garaian predikatutakoak) eta sermoiak (Jesukristoren ingurukoak), gehien-gehienak baztaneraz idatziak.

JAKIN BEHARREKOAK

# Infekzio toxikoak


Egosi, erre edo frixitutako janariak bakteriez salbu daude.

Sabeleko infekzioek errexen harrapatzen gaituzten sasoia da uda. Egoera txarrean dagoen jatekoren bat irentsi eta ohartu orduko goitika botatzeko gogoekin eta beheitikoarekin somatzen dugu gure burua.

Izan ere, udan, tenperaturak goiti egiten duen neurrian bakteriak biderkatu egiten dira, eta janariak lizuntzea ere ez da batere arraroa izaten. Azken kasu honetan erraxagoa da antzematen, jatekoaren azala hanpatu edo beratu egiten baita nabarmen.

Bakteriekin kutsatuta baldin badago, ordea, janaria ez da batere itxuraldatzen; ez zaio kolorea aldatzen, ez usaia, eta ukitzean ere ez dugu deus berezirik somatuko. Beraz, bakteriei aurka egiteko modurik hoberena sukaldean garbitasunez aritzea da. Gogoratu, beti ere, beroarekin hil egiten direla germenak. Egosi, erre edo frixitutako janariak bakteriez salbu daude. Kontuan izan behar dugu, ordea, hozterakoan ez direla desagertzen bakteriak, baina ezta biderkatzen ere.

**SALMONELOSIA:**

Beheitikoa, sukar haundia eta tripako mina izaten dira sintomak. Urtero-urtero gertatzen diren infekzio toxikoen erdia baino gehiago sortzen du Salmonellak, eta arraultza gordinak izaten dira aunitzan errudunak. Erne beraz!

*Urtero gertatzen diren infekzio toxikoen erdia baino gehiago Salmonellak sortzen du.*

**INFEKZIOA SENDATZEKO**

Sabeleko infekzio toxikoa harrapatu ezkero gorputzak ur eta gatz aunitz galtzen du. Horri aurre egiteko farmazietan erosten ahal den sueroa edan behar da, edota etxean ura, limoia, azukrea, bikarbonatoa eta gatza nahastuz prestatutako edaria.

Honekin batera edari hotzak hartuko ditugu: arroz-ura, tea edo kamamila limoiarekin (koka-kola ere gomendatzen dute maiz). Biharamunean jatekoekin saiatu: arrozak, patata egosiak...

## ☞ DISKAK




«Lagunak, adiskideak... eta beste hainbat etsai»

Xabier MONTOIA

ESAN OZENKI RECORDS

Xabier Montoia idazle eta musikariaren bakarkako hirugarren diskoa da honako hau, "Hemen" izenekoaren ondotik heldu zaiguna. Irailaren 23an estrainatuko da hain zuzen, Esan Ozenki disketxearen eskutik orain ere. Aitzinekoan bezala Berako zenbait musikarirekin landu ditu kantak, eta Gipuzkoak Katarain estudioetan nahastua. Hala ere, Maikel tekniko beratarrak egin zuen grabaketa guzia.

Denetara 11 kanta sartu dituzte lan berrian, eta soul kutsu gehiago nabari zaio orokorrean. Gainera, erritmoak aitzinekoan baino dantzagarriagoak dira beharbada.

Aipatu ditugun Berako musikariez gain, Beñardo Goietxe, Eneko BAP eta Tapia ondoan izan ditu Montoiak.

Diskoaren diseinua Ponce hondarribitarrak egin du.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

**JARDUNALDIAK**

**ELGORRIAGA**

**Urriaren 2an** goizeko 10etan, Onndoaren bidea zaldiz. Eguerdian mikorrizatutako zuhaitzei bisita. Bazkalondoan, 5etan, argazki ralliko sariak eta erakusketa. 6etan Onddo kaxulen lehiaketa eta 8tan afaria.

**Urriaren 3an** goizeko 9etan kofradeei harrera. 10etan Meza Nagusia. 12etan enkantea. Kofradeen bazkariaren aitzinetik trxaranga ariko da. Arratsaldeko 5etan akordeoilariekin dantzaldia izanen da.

**KULTUR EGUNAK**

**ETXALAR**

**Urriaren 2 eta 3an** Mintzaldiak, magia, antzerkia... xehetasunak Etxalarko berrietan, 13. orrialdean.

**GAZTE JOKOAK**

**BERA**

**Urriaren 9tik aitzinera** Xehetasunak Berako berrietan, 11. orrialdean.

**MINTZALDIAK**

**LEITZA**

**Irailaren 24an** Aurreran, Pepe Reik Ardi Beltza aldizkariaren proiektua aurkeztuko du.

**XARETAREN EGUNA**

**XARETA**

**Urriaren 2 eta 3an** Urdazubin, larunbatean, goizeko 11etan pilota partidak, eta gaueko 10etan Oskorriren kontzertua. Igandean, Xaretako itzulia goizez eta zikiro jatea eguerdian.

# MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

*Hegoaldetik deitzeko*
*Iparraldetik 00-34-*
**948631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapak** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

## ETXEBIZITZAK
### 101 SALDU


**ADOS**
IRURITA.
- Lur eremu eraikigarria salgai.
✆ 948 451 841

**GOIKO SL**
LEITZA. 8 pisu dauzkat salgai. Informazio pertsonala emanen da.
✆ 649 476 615 • 948 510 346


**ELGORRIAGA.** Pisua salgai. 100 m²koa + 31 m²ko ganbara. Kalefakzioa eta sukaldea guztiz hornitua. ☎ 948 637 571.

**GOIZUETA.** Pisua salgai. 3 gela, sukaldea, jangela eta komuna. Bi kotxerendako garajearekin. ☎ 948 514 213.

**GOIZUETA.** 70 m²ko pisua salgai. 30 m²ko sotoa eta 45 m²ko terrazarekin. ☎ 948 514 002 edo 948 514 027.

## ETXEBIZITZAK
### 102 EROSI


**ADOS**
- Eskaera haundia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 841


**Baserria edo borda** argia eta urarekin erosiko genuke Bortziriak, Malerreka edo Baztanen. ☎ 948 451698.

## ETXEBIZITZAK
### 103 ERRENTAN EMAN

**ELIZONDO.** Pisua errentan emanen nuke. ☎ 948 453 110 edo 948 453 150.

**IRUÑEA.** Pisua errentan emateko unibertsitate inguruan. ☎ 948 631 510.

## ETXEBIZITZAK
### 105 ETXE KONPARTITUAK

**IRUÑEA.** Pisua osatzeko neska bat behar dugu. ☎ 948 450 802 (Blanka).

**DONOSTIA.** Pisua osatzeko neska bat behar dugu Antigua auzoan. Bakarkako logela. ☎ 948 637 228 (Maider).

**IRUÑEA.** Pisua osatzeko hiru neska behar ditugu, Carlos III.a karrikan. Merkea. ☎ 948 450 578 (Ana, 14etatik 16etara)

**BERA.** 23 urteko gazte batek pisua konpartituko luke 3 hilabetez Beran. Lankontuengatik. ☎ 948 631 489 edo 689 801 634.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 107 SALDU

**IGANTZI.** 20 m²ko garajea eta 16 m²ko sotoa salgai. Arropa hedatzeko tokia eta terraza konpartitua ere baditu. ☎ 948 637818.

**BERA.** Bidasoa karrikan 250 m²ko bajera salgai. ☎ 948 630 589.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 109 ERRENTAN EMAN

**Ostatua** errentan emateko Lesakako Bittiria karrikan. ☎ 948 637 263.

## LANA
### 301 ESKARIAK

**Emakume** arduratsu batek lan eginen luke haurrak edo adinekoak zaintzen. ☎ 948 631 137.

**Gazte batek** lan eginen luke edozein ordutegirekin. Autonomo alta emana, furgoneta eta telefono mugikorra baditut. ☎ 609 477 277.

30 urteko **neska** eskaintzen da goizetan lan egiteko. ☎ 948 637 562 (Lurdes, gauetan).

Beran **taxi plaza** traspasatzen da. ☎ 948 630 629 (gauez).

## LANA
### 302 ESKAINTZAK


**KULTURKARI**
**Lan eskaintza**
ZUZENDARI KOMERTZIALA BEHAR DA

**Baloratuko da:**
- Eskualdea ezagutzea.
- Salmentan esperientzia.
- Antolaketa kapazidadea.
- Marketing eta enpresa administrazioan ezagutza.
- Autoa izatea.

*Bidali Curriculumak lehenbailehen helbide honetara:*

***KULTURKARI***
***Herriko Etxeko Plaza, 1***
***31780 BERA***


**Sukaldari** laguntzaile bat behar da Ibardinen lan egiteko. Urteosoko kontratua. Ordutegia: 8,30etatik 17etara. Sukaldean esperientzia izatea edo ikastaroren bat beharrezkoa. ☎ 619 829 289 (Itziar).

**Bi zerbitzari** behar dira Ibardinen lan egiteko. Urte osoko kontratua. Ordutegia: 9etatik 17etara. Frantsesa ulertzea hobe, bainan ez derrigorrez. ☎ 619 829 289 (Itziar).

## MOTORRA
### 501 SALEROSKETAK

**Citroen BX** 1.9 Diesela salgai. NA-U. Egoera onean. ☎ 948 637 852.

**Citroen ZX** 1.9 Diesela saltzeko. NA-AF. Ongi dago. ☎ 948 631460 (arratseko 8etatik 10etara).

**Citroen ZX** xuria salgai. NA-AC, egoera onean. ☎ 649 285 878 (eguerditan).

**Opel Sintra** salgai, NA-AT. 32.000 km. ☎ 948 631 065.

## MOTORRA
### 502 TAILERRAK


NISSAN
**BERABI tailerrak**
✆ 948 631 445•BERA
Nissan Vanette C-5, Ibiza D, Nissan Trade 2.000, Mitsubishi 2.5 TD merkea.
BERRIETAN OFERTAK

**MENDAUR MOTOR**
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Terrano II, Astra GSI, C15, Land Rover motza.
Suzukiak: Vitara eta Samurai aukeran.

**GANIX Tailerrak**
Iturlandeta, 9 • ✆ 948 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

**BOAN TAILERRA**
CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

## ANIMALIAK

### 601 OPARI EMATEKO

**Artzain txakurrak** oparitzeko ditut, bi hilabetekoak. Iriarte baserrian (Zubieta). ☎ 948 393 081 (eguerdian eta 19etatik aurrera).

**Txakurkumeak** opari emateko. ☎ 948 631 448.

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

Oilagor ehizako **zakurra** salgai. 15.000 pta. ☎ 606 094 024.

Oilagor ehiziko **zakurkumeak** salgai, txertatuak eta parasitoak kenduak. 15.000 pta. ☎ 606 094024 (gauez deitzeko).

**Bertizko zaldiak** salgai. ☎ 948 592 322.

**Erbiko zakurrak** salgai. ☎ 948 387 026.

**Behorra** salgai, lanean hezia. ☎ 948 510 276.

**Pekadako zakurra** salgai Saran. Konfirmatua. ☎ (00 33) 559 542 777.

## DENETARIK

### 701 GALDU/AURKITUAK

**Beran,** Matzada inguruan, kotxeko giltza batzuk aurkitu ditut (ETBko txoriaren giltzariarekin). Berako Herriko Etxean daude.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**1.000 litroko depositoak** salgai. ☎ 948 450 601 / 600 386 955.

11 metroko **balkoirako barandila** berria salgai. Aluminiozkoa. Prezio onean. ☎ 948 631 510.

**Andregai jauntzia** eta osagarriak salgai. Egoera onean. Prezioaz solastuko gara. ☎ 948 631 353.

300 litroko **esne tankea** salgai. ☎ 948 637 910.

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

Zorionak **Mugaireko** Aintzane Salaberriri: ongi pasa urtebetetze egunean. Zure kuadrilaren partetik.

Zorionak **Erratzuko** Komandante Hueldiri bere 22. urtebetetzean. Erratzuko ero sanoen partetik.

**Lesakako** Mikel Mutuberriari: Etxalarko bost neska gara, zu zara bihotza kixkaltzen duen poxpolua. Moñoño.

**Baztango** Kilkerra, Xarra, Kixu eta Peltzarentzat: munduko lagunik eroenak eta majenak zarete. Ez aldatu, ia hemendik hiru urtera "Dorado"ren Peugeot berdean elkartzen garen Dorado eta Miki Pu-rekin. Hippy.

**Arantzako** Fatimari: asko gogoratzen naiz zuretaz, espero dut zerbait izatea zurekin, eta gonbidatzea zure urtebetetzean. Asko maite zaitut. J.M. Animo. Fatima: Roba Setas.

**KULTURKARI**
**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!
✆ 948 63 11 88

## ITURENgo UDALA

***OBRAK KONTRATATZEA, "BASOKO AZPIEGITURAK HOBETZEA ITURENEN"***

Xedea: Goiburuan aipatutako obrak.
Esleipen prozedura: prozedura negoziatua, prentsako publizitatearekin.
Kontrataren aurrekontua, BEZ abarne: 6.516.723 pezeta.
Proposamenak aurkezteko epea: 1999ko irailaren 27ko eguerdiko 12ak arte, Iturengo Udaletxeko Idazkaritzan.
Aurkeztu beharreko agiriak: klausula administratiboen pleguan ageri direnak.
Proposamenak irekitzea: jendaurrean irekiko dira, 1999ko irailaren 27an, arratsaldeko 2 terdietan.
Proiektu teknikoa eta klausula administratiboen plegua interesatuen eskura daude Iturengo Udaletxean.

*Ituren, 1999ko irailaren 8an.*
***ALKATEA, Jose Mª Gorrosterazu***







**Bidali** TTIPI-TTAPA **herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira. Eskatu informazioa.

✆ (+34) 948 631188

# URTEBETETZEAK

*Argazkiak berreskuratzeko, bidali sobrea zure helbidearekin.*

**OHARRA:**
**Argazki bakoitzarek n batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.**



**Joaquin Rodrigez Lopez** lesakarrak irailaren 9an 49 urte bete ditu. Zorionak.



**Manuel Etxeberria Txoperena** lesakarrak irailaren 25ean urteak beteko ditu. Zorionak!



**Beñat Ezponda Garcia** oiartzuarrak 9 urte bete ditu irailaren 15ean. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



**Nekane Astiz Goñi** lekaroztarrak 2 urte bete ditu irailaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat amatxo, aitatxo eta Ainhoaren partetik.



Urtebetze on bat Baigorri Xiteiko bixkieri, **Maddalen** eta **Mirentxu Coscarat!**



**Joxemari** eta **Belen**ek irailaren 21 eta 13an urteak bete dituzte. Zorionak Lorea, Ainara eta Mikel Aitorren partetik.



**Joxemari** eta **Belen**ek irailaren 21 eta 13an hogeitabusti urte bete dituzte. A ze pareja bikote! Ezetz asmatu nork bidali duen ohar hau? Ja, ja, ja...



**Julen Oskoz Elizondo** aranaztarrak 9 urte bete ditu irailaren 11n. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



**Adriana Gonzalez Ramos** leitzarrak urtea bete du abuztuaren 9an. Zorionak eta muxu haundi bat familia eta lagunen partetik.



**Itsaso Alcalde Etxepare** lesakarrak 7 urte bete ditu irailaren 18an. Muxu haundi bat Ibai, atta eta amaren partetik.



**Txema Otxoteko** eta **Igor Lasaga** beratarrek irailaren 27an, 24 eta 16 urte beteko dituzte. Zorionak bi familien partetik



**Leire Mitxelena Gortari** lesakarrak 10 urte bete ditu irailaren 1ean. Muxuak zure guraso, ahizpa eta familia guztiaren partetik.



**Jon Almandoz** beratarrak ekainan bete zituen urteak. Berandu den arren zorionak Baietz eta Maiderren partetik.



**Josu Urzuegi Agirre** zigatarrak 2 urte beteko ditu irailaren 22an. Zorionak aita, ama eta familiaren partetik.



**Saioa Mikelarena Mendiburu** legasarrak 2 urte bete ditu irailaren 19an. Zorionak Balaxiren partetik.



**Estitxu Etxarte** etxalartarrak irailaren 4an urteak bete ditu. Zorionak Igantziko familiaren partetik.



**Joseba Bertiz Etxarte** igantziarrak 3 urte bete ditu irailaren 11n. Zorionak atta, ama, arreba, amatxi eta osabaren partetik



**Maria Dolores Otxandorena** ezkurrarrak irailaren 15ean urteak bete ditu. Ezkurrako iloba guztien partetik urte askoz.



**Beñat Abuin Yepes** lesakarrak 3 urte bete ditu irailaren 22an. Zorionak Alex, Ander, guraso eta lehengusuen partetik. Muxu haundi bat.



**Naiara Aldazabal Zamarreño** beratarrak 13 urte beteko ditu irailaren 23an. Zorionak Iñigo, Mikel, guraso eta amoñaren partetik.



**Nahia Irigoien Perez** etxalartarrak 7 urte beteko ditu irailaren 28an. Zorionak familiaren partetik.



**Miren Olaetxea** errenteriarrak 7 urte beteko ditu irailaren 21ean. Zorionak atta, ama, amona, atatxi-amatxi eta izeba-osaben partetik.



**Antton Lazkanotegi** beratarrak irailaren 25ean urteak beteko ditu. Zorionak attatto! Muxu haundi bat Andoni eta Ireneren partetik.



**Edurne Tapia** eta **Maddalen Lopez** lesakarrek 28 eta 2 urte bete dituzte irailaren 6 eta 12an. Zorionak ero pare honeri, Juan Mari eta familiaren partetik.



**Elixabet Irazoki Zelaieta** beratarrak irailaren 18an bete ditu 7 urte. Muxu aunitz. Zorionak! Xabiri ere zorionak!



**Dunia Abatal** beratarrak 4 urte beteko ditu irailaren 27an. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



**Itsaso Arretxea Goñi** elizondarrak 4 urte beteko ditu urriaren 21ean. Aunitz urtez Imanol, atta eta amaren partetik.



**Jon Zabaleta** leitzarrak abuztuaren 8an 8 urte bete ditu. Urte askoz familia eta bereziki lehengusina Axunen partetik.



**Maite Tejon Otxandorena** iruindarrak 2 urte beteko ditu urriaren 5ean. Urte askoz berritsu! Argimiro eta Isabelen partetik.



**Luis** eta **Fatima** aranztarrek urteak beteko dituzte irailaren 29 eta 30ean. Aunitz urtez eta zorionak familiaren partetik.



**Joana** sunbildarrak irailaren 26an 2 urte beteko ditu. Zorionak eta bi muxu familia guziaren partetik.



**Margarita** sunbildarrari zorionak irailaren 27an urteak beteko dituelakoz. Zorionak familia guziaren partetik.



**Roxari Indakoetxea**ri urriaren 5ean urteak beteko dituelakoz, zorionak! Lesaka, Doneztebe eta Sunbillako familia. Nor zen telefonokoa?



**Iker Telletxea**ri urriaren 5ean 8 urte beteko dituelakoz, zorionak! Atta, ama eta Aritzen partetik.



**Jaime Iriartek** urriaren 7an beteko ditu urteak. Zorionak Lesaka, Doneztebe, Sunbillako familien eta Ameriketako bi anaien partetik.



**Mikel Telletxea** lesakarrari zorionak irailaren 26an 4 urte beteko dituelakoz. Zorionak! Atta, ama eta Lesakako familiaren partetik.



**Fatima Elizondo** aranztarrari irailaren 29an urteak eginen dituzu, espero dugu afaltzera etortzea. Zorionak! Koadrila eta bertze bat. J.M.



**Oihana Retegi Bengoetxea** arraioztarrak irailaren 2 ditu. Zoironak eta musu haundi bat aita-ama eta Igorren partetik.



**Garbiñe Jorajuria Bazterrika** donamariarrak 12 urte bete ditu irailaren 24an. Zorionak eta muxu haundi bat.



**Juan Vergara**: bueno, Juanito Banana, enteratu gara irailaren 30ean urtebetetzea duzula. Espero dugu gonbidatzea...

# ORDOKI

**ALTZARIAK**

**Estilo ugariko mobleak**

**Kalitatea prezio egokian**





**• LOGELAK • EGONGELAK**
**• TRESILLOAK • KUTXAK**
**• BESAULKIAK...**

ERAKUSKETA Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: **948 637 780**
**LESAKA**



BUSINESS INITIATIVE DIRECTIONS · BID ·
THE ARCH OF EUROPE GOLD STAR AWARD FOR QUALITY

## Hizkuntz Eskola
# Elduaien

30 YEARS OF EXCELLENCE
30 Years

LIDER DEL BUEN SERVICIO 1996 ACADEMIA ELDUAIEN

1996. urteko zerbitzu onenaren aintzindari

*Ateak irekiko ditu*

*Matrikula epea: Iraila*

*Eskolak urrian hasiko dira*

- Euskara
- Ingelesa
- Frantsesa
- Alemana
- Gaztelera
- taliera

☎ 948 510 635
Elbarren, 20 - 1. • 31880 LEITZA
☎ 943 670 052
Martin Jose Iraola - 8. • TOLOSA
☎ 943 674 733
Kondeko aldapa - 30. • TOLOSA
☎ 943 310 753



*Ingelesa ikastea ez da hain garestia. Hemendik aurrera 3.100 Ptatik. aurrera etxeko txikienek (4-9 urte bitartean) gaur egun hain beharrezkoa den hizkuntza hau ikasteko aukera izanen dute herrian.*

# 2.000 arrazoirengatik

# EUSKARA




**Bortzirietako Euskaltegia**

**Lesaka**ko Matxinbeltzenean 948 637 796
**Bera**ko Udaletxean 948 631 105
(18,00etatik 20,00etara)
RICARDO BAROJA Eskolan
948 625 019

**Leitzaldeko Euskaltegia**

**Leitza**ko Udaletxean
Tfnoa: 948 610 776

**Malerrekako Euskaltegia**

**Doneztebe**ko Eliza pareko egoitza berrian
Tfnoa: 948 451 555

**MATRIKULAZIO EPEA: Urriaren 5a baino lehen**